

2023-2027  
Legealdia

# Bizkaia

---

# Herri Programa

---

**EGINGO DUGU.** ehbildu

---

# Aurkibidea

---

<b>01 Gizarte politikak</b>	4
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	4
B. HELBURU OROKORRA	6
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	7
<b>02 Azpiegiturak eta mugikortasuna</b>	10
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	10
B. HELBURU OROKORRA	11
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	11
<b>03 Ekonomia sustapena</b>	14
<b>3.1 Industria</b>	14
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	14
B. HELBURU OROKORRA	16
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	16
<b>3.2 Zerbiztuak eta turismoa</b>	20
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	20
B. HELBURU OROKORRA	21
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	22
<b>3.3 Merkataritza</b>	24
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	24
B. HELBURU OROKORRA	25
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	25
<b>04 Fiskalitatea</b>	27
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	27
B. BEREHALAKO NEURRIAK 2024RAKO	30
C. ZERGA ERREFORMARAKO PROPOSAMENAK	31
D. IRUZUR FISKALAREN AURKAKO NEURRIAK	37
E. ZERGA POLITIKAN GENERO IKSUPEGIA TXERTATU	37
<b>05 Trantsizio ekosoziala</b>	38
<b>5.1 Elikadura burujabetza</b>	39
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	39
B. HELBURU OROKORRA	40
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	41
<b>5.2 Basogintza ekologikoa</b>	43
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	43
B. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	43

<b>5.3 <i>Trantsizio energetikoa</i></b>	44
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	44
B. HELBURU OROKORRA	45
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	45
<b>5.4 <i>Uraren kudeaketa</i></b>	47
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	47
B. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	48
<b>5.5 <i>Hondakinen prebentzioa</i></b>	49
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	49
B. HELBURU OROKORRA	50
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	50
<b>06 Kultura, Euskara eta Kirola</b>	52
<b>6.1 <i>Kultura</i></b>	52
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	52
B. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	53
<b>6.2 <i>Euskara</i></b>	54
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	54
B. HELBURU OROKORRA	54
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	54
<b>6.1 <i>Kirola</i></b>	55
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	55
B. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	55
<b>07 Udal Finantzazioa</b>	57
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	57
B. HELBURU OROKORRA	58
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	58
<b>08 Aurrekontu Politikak</b>	60
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	60
B. HELBURU OROKORRA	61
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	62
<b>09 Gobernantza eredia eta parte-hartzea</b>	64
<b>9.1 <i>Gobernantza eredia</i></b>	64
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	64
B. HELBURU OROKORRA	66
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	66
<b>9.2 <i>Parte-hartzea</i></b>	68
A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA	68
B. HELBURU OROKORRA	69
C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK	69

# 01

# Gizarte politikak

## A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA;

Gizarte zerbitzuak Ongizate Estatuaren oinarrietako bat dira eta eskubide unibertsal eta subjektibo gisa eratu behar dira. Hala eta guztiz ere, eskubide hauek bermatzeko gai ez den sistema ahul baten aurrean gaude: diru hornidura eskasa, pribatizazio maila altua eta lurralde desoreka izan ditu ezaugarri sistema horrek.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 legearen helburu nagusia gizarte zerbitzuak eta prestazioak unibertsalizatzea izan zen. Hau da, adinekoen egoitzak, zentro okupazionalak, indarkeria matxista jasaten dutenentzako laguntza psikosoziala edo eguneko zentroak bezalako zerbitzuak pertsona guztien esku jartzea, bakar bartzuen pribilegioa izan ez daitezen.

Harrez gero, mugarri bat izan bada, hori 2016ko abenduaren 25a izan da. Egun

horretan legean jasotako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak eskubide subjektibo bilakatu ziren. Horrek esan nahi du, gaur egun eskubide horien betetzea erreklamatu ahal dela administrazio bidetik eta, beharrezkoa bada, epaitegietan ere bai. Beraz, legearen arabera, osasunak, hezkuntzak edo pentsioak duten babes maila bera dute gizarte zerbitzuetako prestazioek. Horregatik, EH Bilduren helburua da aitortuta duten eskubide izara defendatzea, orain arte Bizkaiko Foru Aldundiak izan duen jarreratik argi eta garbi aldentuz. Gizarte zerbitzuak ez dira “laguntzak”: guztion bizitzarako funtsezko eskubide ukaezinak dira.

Foru Aldundiek zer esan eta ardura handia dute gizarte zerbitzuen sistema osoaren funtzionamendu egokian, euren eskumena baitira bigarren mailako arretarako gizarte zerbitzuak; hau da, zerbitzu eta prestazio espezializatuak. Horiek ez badoaz

egoki, sistema osoa kaltetzen da. Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak pisu handia du sistemaren garapenean, baita planifikazio lanetan eta hirugarren sektorea eta herritarren parte-hartzea sustatzeko unean ere.

Tamalez, planifikazioa egiteke dagoen zeregina da. Ondorioz, premiei ahalik eta egokien erantzuteko zailtasunak daude, gainera ezinbestekoa den zerbitzuen hurbiltasuna eta lurralde-oreka eskuratzeko eragozpenak nabariak dira. Bizkaia lurralde zabala eta askotarikoa da, eta kalitatezko zerbitzuak ezinbestean deszentralizatutako zerbitzuak izan behar dira. Ildo horretan, barne koordinazioa asko hobetu behar den eremua da.

2023ko martxoan Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean. Plan estrategikoa honek sistemaren pribatizazioaren aldeko apustua indartzen du, baita herritarren zein herrialdeen arteko desorekak betikotu ere.

Gaur egun **zaintzen arloan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren artean dauden desorekak zuzendu beharrean, Jaur-laritzak aurkeztutako plan estrategikoa desoreka horiek egiturazko bilakatuko ditu eta, hala, herritarrok eskubide ezberdinak izango ditugu, bizi garen tokiaren arabera.**

Lurraldeen artekoa ez da plan estrategikoa indartzen duen arrakala bakarra. Izan ere, erresidentzietan, zerbitzuari lotutako **txekeetan oinarritzen den eredu betikotu egingo da, planifikazioan txeke horiek sistemaren plazak balira bezala** hartzen baitira. Legeak, berez, txeke horiei behin-behineko izaera ematen zien, plaza publikoak eskaini bi-

tartean bakarrik erabili beharreko eredu, baina erabilera okerra ematen ari zaie.

Txeke horiek erresidentzien prezioa estaltzen ez duten neurrian, **eredu hori betikotzearen ondorioak automatikoak dira: arrakala soziala, batetik, eta genero arrakala, bestetik, gero eta handiagoak dira.** Ekonomikoki ahal duenak zerbitzu pribatuetara joko du, eta ezin duenak ahal bezala moldatu beharko du, eta horrek desberdintasun sozialak areagotuko ditu. Eta sistema publikoak arreta bermatzen ez duenean, emakume batek sostengatuko ditu zaintza lan horiek, etxean ala egoitza pribatuetan, erabat feminizatutako jardueretan. Kasu batean zein bestean, guztiz baldintza prekarioetan.

Zentzu horretan, EH Bilduren helburua da zainketa egokiak eta libreki aukeratuak bermatzea, beti lan baldintza duinak eskainiz.

Datuek argi erakusten dute Aldundiak bultzatutako ereduaren porrota. Bizkaiko zaintza sistemak egiturazko aldaketa sakonak behar ditu. Urteetako pribatizazio eta prekarizazio politikek eraman gaituzte egungo egoerara. Pandemia baino lehen Bizkaiko egoitza sarearen gabeziak agerikoak ziren, eta COVID-19ak bere jostura guztiak apurtu ditu.

Egoerak bultzatuta, 2020ko iraileko pleno politikoan eredu aldaketa iragarri zuen Rementeria Ahalduen Nagusiak. Honakoa esan zuen, hain zuzen: “Egoitzak etxe baten ahalik eta antzekoenak eta ospitale baten ahalik eta desberdinenak izan behar dute”. Laburbilduz, egoitzak tamaina txikiko bizikidetza unitatetan antolatzeko asmoa adierazi zuen.

2021aren amaieran, Aldundiak epe luzeko zainketetarako trantsiziorako plana aurkeztu zuen. Plan horrek lau ardatz ditu: EtxeTIC eredu hedatzea, bizikidetza unitateak hedatzea, laguntza-sare berezi bat sortzea eta egoitzetako langileen prestakuntza profesionala areagotzea prestakuntzaren bidez.

EtxeTIC ereduak eguneko zentro baten arreta eta mendekotasun egoeran etxean dauden pertsonen monitorizazioa uztartzen ditu. Teknologia pertsonen zaintzarako erabiltzea positiboa da, baina ez da nahikoa, ikuspegi feminista duen estrategia integral batetik heltzen ez bazaio, etxeko zainketen familiarizazioa eta feminizazioa saihesteko.

Bizikidetza unitateen hedapenak, hau da, egoitzak gehienez 25 pertsonarentzako modulu bihurtzeak, zuritze politikoko ariketa bihurtu du egoitza eredu aldatzeko aukera. Prozesu horren ondorioz, lanpostu publikoak galdu egin dira eta emakumezko langileen lan baldintzek okerrera egin dute.

Profesionalen prestakuntzak ardatz nagusia izan behar du zaintza politiken eraldaketan; hala ere, prozesu hori ez da hedatu aldi baterako langileentzat, ezta etxeko langileentzat ere. Beraz, Aldundiak iragarritako trantsizioa irregularra izan da, eta argi ilunez betea.

Beraz, momentuz ez da eredu horretarako benetako trantsizio handirik ikusi, bai ordea egoitzen pribatizaziorako eta GUFEdusezteko mugimendu berriak, Gernikako Lurgorri eguneko zentroa, Gallartako plaza erresidentzialen ezabatzea edota Mundakako zentroaren irekiera (zerbitzuak pribatizatuta dituen), esate baterako.

EH Bilduren ildo eta jardunaren funtsezko izan dira, eta izaten jarraituko dute, egoitza sistemaren inguruko ekimenak eta batez ere egoitza sistema PUBLIKOAREN aldarrikapena.

Proposamen errealistak egin ditugu, bi oinarri argirekin: eredu berrirantz urratsak ematea eta erantzukizun publikoa. Horiek kontuan izanda, hainbat proposamen egin ditugu horretarako: funts berezia sortzea, ikuskatzaile kopurua bikoiztea edota GUFERako transferentzia handitzea.

### B. HELBURU OROKORRA:

- Herritarrei bermatu gizarte zerbitzuen eta prestazioen sarbidea, beharrezkoak diren estaldura eta intentsitatearekin. Aldi berean, beharrezkoa da gizarte zerbitzuei balioa ematea, herritarren konfiantza lortzeko.
- Gizarte zerbitzuen kalitate bermatu. Horretarako, giza baliabide nahikoak eta langileen lan baldintza duinak ziurtatu behar dira.
- Gizarte zerbitzuen izaera publikoa sendotu, kudeaketa pribatua nagusi baita gaur egun.
- Erabiltzaileen eta gizarte eragileen parte-hartze eskubidea bermatu, legean eskubide eta printzipio gisa jasotzen da eta. Bestetik, profesionalen ezagutza eta esperientzia aprobetxatzeko bideak ezarri behar dira.
- Itxaron zerrendak eta koordainketa gutxitzeko neurriak ezarriko ditugu.

## C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK:

- Eskubideen unibertsalizazioa modu egokian eta eskualdeen beharrei egokituta planifikatzeko, Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapa osatu. Benetako planifikazio deszentralizatua lortze aldera. Horretarako, instituzioen arteko koordinazio mahaia (Bizkaiko Mahai Interinstituzionala) benetako lan esparrua bihurtu behar da, udalen ezagutzari etekina aterata. Gainera, beharrezkoak diren ebaluazioak eta egokitzapenak egingo dira, legearen betetze osoa lortze aldera.
- Gizarte zerbitzuen sistemaren funtzionamendu egokirako funtsezkoa da eskubideak agerira ateratzea, informazio nahikoa eskaintzea, zerbitzuak eta prestazioak heldu errazak izatea, eta, bereziki, hauek duintzea. Ezjakintasuna, lotsa edo estigmatizazioa ezin dira gehiago izan gizarte zerbitzuak eta prestazioak ez erabiltzeko arrazoia.
- GUFÉ-IFAS (Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea- Instituto Foral de Asistencia Social) —zentro eta zerbitzu publikoak kudeatzen dituen erakundea— berrindartu, gizarte zerbitzuen izaera publikoa sendotzeko gakoa da-eta.
- Kontrataturiko eta itundutako baliabide pribatuen zerbitzuen kalitatearen ikuskapena eta kontratuaren betekizunen ebaluazioa hobetu eta areagotuko da. Kudeaketa pribatua bada ere, ardura publikoa izaten jarraitzen duela argi geratu behar da. Egun, agerian geratu da egiten diren kontrolak ez direla nahikoak.
- Gizarte sistemen arteko elkarlana sendotu: esparru soziosanitarioa, gizarte eta hezkuntza alorreko sistema, eta gizarte eta lan alorrekoa. Gainera, sistema beraren baitan koordinazio eraginkorra hobetzeke dagoen elementua da, bereziki etengabeko arreta garatu nahi bada. Sistemaren baitan administrazio eta sail ezberdinen parte-hartzeak ezin du erabiltzailearengan eragin negatiborik izan: sistema bakar baten moduan funtzionatu behar du.
- Marko egokiak eta iraunkorrak sortu erabiltzaileen —beharrezkoa denean euren familia edo ingurukoekin batera— eta gizarte eragileen parte-hartzea bermatzeko. Parte-hartzea eraginkorra izateko etengabekoa izan behar da, planifikaziotik ebaluaziora arte. Bestetik, abiapuntu bezala, beharrezkoa da gardentasuna bultzatzea, eta informazioa benetan irisgarria eta eskuragarria izatea herritarrentzat.
- Menpekotasuna eta aniztasun funtzionala dutenek ohiko ingurunean eta ahalik eta modu aktiboenean bizitzeko zerbitzu espezializatuak garatu.
- Indarkeria matxistari jasaten duten emakumei zuzendutako zerbitzuak (aholkularitza juridikoa, arreta psikologikoa eta esku-hartze psikosoziala) indartu, giza baliabideak handituz eta beste sistemekin koordinazioa bultzatuta. Era berean, lagun-egite profesionala etengabe bermatuko da. Bestetik, arreta egiten duten profesionaleri prestakuntza feminista eskaini, emakumeen boteretze prozesuetan lagungarri izateko.

- Haurrak eta nerabeak babesteko orduan neurri sozioedukati boei lehen-tasuna eman, familia harrerarekin ba-tera. Adingabeen zentroak ezin dira izan sistemaren ardatza. Arlo honetan bereziki deigarria da giza baliabide gehiagoren beharra, Aldundian ber-tan ere. Azkenik, beharrezkoa da ba-bes sistematik igaro diren gazteak adin nagusikoak bilakatzerakoan baliabide nahikoak egotea, egun batetik bestera babesik gabe ez geratzeko.
- Babesgabetasun, menpekotasun, edo bazterkeria egoeran dauden pertso-nak ahaldunduko dituen arreta eredu-a adostu, baliabideak eskubidetzat joko dituen, ikuspegi asistentzialistatik urrunduta.
- Erabiltzaileen duintasuna eta berdint-asuna oinarrizko printzipioak diren heinean beharrezkoa da ezberdintasu-naren aitortza lortzeko estrategia oro-kor bat garatzea. Zentzu horretan ezin-bestekoa izango da benetako arreta pertsonalizatua garatzea, aniztasuna aintzat hartuko duena. Gainera, era-biltzaile eta profesionalen hizkuntza eskubideak bermatuko dira arreta zu-zena eskaintzen denean.
- Tutoretzapeko Institutua. Bizitza in-dependentterako eskubidea aintzako-tzat izanda, beharrezkoa da gizarte eta osasun arreta egokian eta askotarikoan aurrera egiten jarraitzea, desgaitasu-nen bat duten, osasun mentaleko ara-zoak dituzten eta gizarte bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden pertso-nen premiei egokituz. Hori da bidea, ikuspegi komunitarioaren, desinstitu-

zionalizazio politiken bultzadaren eta nazioarteko itunetan eta arau garape-nean. Osasun mentaleko arazoak di-tuzten eta interakzio sozialerako zail-tasunak dituzten pertsonak ezin dira gizarte eta osasun arretarik gabe gera-tu, horren ondorioz, gizarte bazterke-tako egoera eta osasun fisiko eta men-tala larriagotzeko arriskua dagoelako. Administrazio arteko eta administra-zio barruko koordinazioa eta lankide-tza indartu behar dira, pertsonarengan eta esku-hartzeen jarraikortasunean oinarritutako arreta printzipioa bete-tzeko eta zerbitzu publikoetan karga desegokiak saihesteko.

- Bizkaiko Foru Aldundiak onarturi-ko 2019 urteko Arau Planean, Gizarte Ekintza Sailak aurreikusitako arauen artean zegoen “Laguntza pertsonale-rako prestazio ekonomikoa arautzen duen Foru Dekretua aldatzea”. Helbu-rua zen “Pertsona onuradunen kolek-tiboa zabaltzea”. Ez zen gauzatu eta Bizkaian, pertsona nagusiak zaintzen dituzten pertsonen prestaziorako sar-bidea ukatzen zaie. Horrek oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Legean jasotako es-kubideak urratzen ditu, eta beraz, de-kretua aldatu egin behar da.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari bu-ruzko dekretuaren 13. artikuluan eus-kal administrazio publikoek, berez edo beren arteko akordioen bitartez, zerbi-tzuak lortzeko eta zerbitzuetan jarrai-tzeko baldintzak malgutu ahal izango dituztela jasotzen du. Era berean, arre-ta etengabe ematea eta komunitate ingurunean gehien txertatuta dauden



arreta alternatiben erabilera, eta beraz, arreta pertsonalizatuagoa, integralagoa eta hurbilagokoa ematea ahalbidetzeraz bideratuko direla beti esaten du. Hori dela eta, etxegabetasunari aurre egiteko udal zerbitzuen eta foru zerbitzuen arteko jarduera eta koordinazio protokoloak indartu behar dira.

- EtxeTIC ereduaren diagnostikoa egin, ikuspegi feminista txertatuz.
- Bizikidetza Unitateak hedatu plaza publikoak handituz eta langileen ratioak handituz.
- Mendekotasuna duten eta zainketa intentsiboak behar dituzten pertsonentzako egoitza arretarako eredu berri bat ezartzea.
- Menpekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten etxeko langileei prestakuntza profesionala eskaini.

# 02

# Azpiegiturak eta mugikortasuna

## A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA;

Azken urteetan nagusitu den etengabeko azpiegiturak eraikitzeke politikekin amaitu beharra dago, inbertsio politika basati honek administrazioak itotzera eraman gaituelako. Bizkaian lehenetsi behar dira errentagarritasun soziala areagotuko eta garraio publikoa bultzatuko dituzten azpiegiturak.

Beharrezkoa da inbertsio politika gizarte errentagarritasunaren printzipioan oinarritzea, ingurumen eta iraunkortasun irizpideak ahaztu barik. Baina Bizkaiko Foru Aldundiak apustu irmoa egin du ibilgailu pribatuaren erabilera sustatuko luketen azpiegituren alde: Supersurraren luzapena eta Lamiakoko ur azpiko tunela. Guk zalantzan jartzen ditugu lehentasun horiek. Are gehiago, EH Bilduk argi du Bilboko metropoliaren hegoaldeko saihesbi-

dearen luzapena inondik inora ere ez dela lehentasun bat. Herrialde honetan, onura soziala izango luketen beste azpiegitura batzuk daude.

Inbertsiorik egokiena ibilgailuen erabilera murrizteko, garraio publikoa indartzea da, eta Aldundiak kontrako norabidea hartu du. EH Bilduk garraio publikoa bultzatzeko neurriak sustatuko ditu, ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko asmoz.

Metroaren 5. linearen proiektua martxan dago, eta 3. linearekin eta Euskotrenen linea orokorrarekin lotuko da. Hobekuntzak behar ditu Sarratun, intermodalitatea bermatzeko, eta Usansolon, berriz, geltoki/sarbide bat erdigunean. Aurrekontua bermatu behar da finkatutako epeak betetzeko.

Hurrengo apustua metroaren 4. linea izango da, ezinbestekoa baita proiektua lehenbailehen martxan jartzea. 2023-2027

legegintzaldia 4. linearen legegintzaldia izan behar da.

Bidegorriak ere ez ditugu ahaztu nahi. EH Bilduk beti eskatu du inbertsioen portzentajea modu esanguratsuan handitzea, herri eta eskualdeen arteko sareak sortuz, eta bizikleten alokairu publikoaren sareak indartuz. Beharrezkoa da, behingoz, apustu irmoa egitea bidegorrien sarea bultzatzeko.

Bizkaibusek premiazko hobekuntzak behar ditu eskualde guztietan. 2024an amaituko dira egungo emakidak (beste 5 urtez luza daitezke), eta beraz, une erabakigarrian gaude hobekuntza horiek proposatzeko eta gauzatzeko. Eta, aldi berean, autobus zerbitzuaren publikazio-rantz (kudeaketa publikoa) urratsak ematea proposatuko dugu. Jauzi kuantitatibo bat ere behar dugu flota elektrifikatu bat izateko, gaur egun baino askoz ere proportzio handiagoan.

Ondorioz, azken urteetan sortutako arazoak saihesteko, ezinbestekoa da enpresek ematen duten zerbitzuari jarraipen estua egitea. Erabiltzaileek jasotzen duten zerbitzuaren kalitatea bermatzeaz gain, diru publikoa modu egokian erabiltzen dutela ere bermatu beharra dago.

Badaude beste alternatiba batzuk ere, adibidez txartel bakarraren ezarpena, bi ardatzetan oinarrituko dena: erabiltzaileen errenta eta erabilpen maiztasuna. Urteak daramatzagu aldarrikapen honekin baina ia urratsik ere ez da eman hori gauzatzeko. Aitzakiak besterik ez ditugu entzun, eta borondate politikorik ez dagoela agerian geratu da.

## B. HELBURU OROKORRA

Egungo ereduaren mugak begi bistakoak dira eta ekonomikoki, sozialki eta ingurumenarekiko jasangarria izango den eredu bat aldarrikatzen dugu: lurralde antolaketa arduratsu baten ondoriozko garraio plan integral iraunkor bat diseinatu behar dugu, garraio publikoari lehentasun osoa emanez, egun ditugun azpiegiturak kontuan izanez eta erabilera areagotzeko neurriak hartuz.

Horretarako, kontuan hartuko dugu legegintzaldi honetan Batzar Nagusietan adostu den Bizkaiko Garraio Publikoaren Plan Estrategikoari buruzko diktamena.

## C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Irisgarritasuna eta mugikortasun iraunkorra dira gure mugikortasun politikaren ardatzak.

Norabide horretan, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak lankidetzan jarriko ditugu, herritar orok irisgarritasuna bermatua izan dezan eta administrazio publikoek eskaintzen dituzten zerbitzu guztietara sarbidea izan dezaten. Arreta berezia izanda aniztasun funtzionaleko erabiltzaileekin, irisgarritasun normalizatu bat bermatzeko.

Horretarako, ezinbestekoa da Euskadiko Garraio Agintaritza eta Bizkaiko Mugikortasun Agintaritza indartzea eta eurek eraginkortasuna bultzatzea. Eta baita hiru lurraldeetako agintaritza desberdinen homogeneizazioa.

Intermodalitatea indartzen joan behar gara gure lurraldean, horretarako zehaztu behar dira intermodalitate hori erraztuko luketen guneak. Aldirietako aparkaleku sare batekin helburu hori lortzeko urratsak emango genituzke, ibilgailu pribatuaren erabilera murriztuz.

Eraginkortasun hori modu esanguratsuan areagotuko litzateke, Bizkaian Txartel Bakarria ezarriko balitz. Legegintzaldi honetan, lehentasunezkoa izango da helburu hori lortzea. Parametro hauetan ezarriko genuke:

- ✓ Ibilbide bera, tarifa bera, garraiobide guztietan.
- ✓ Garraio publikoa zenbat eta gehiago erabili, orduan eta deskontu handiagoa.
- ✓ Pertsona bakoitzaren errentarekin bat datozen tarifak.
- ✓ Bizkaia osorako baliagarria eta erabilgarria.

Bizikleta bidezko mugikortasuna planifikatu eta garatuko dugu, aisialditik haratago, egunerokotasunerako garraio sistema modura ulertuta. Bizikleta garraio-maillakotzat hartzea eskatzen dugu, gainerako garraiobideen maila berean. Gehien bat herri zein eskualdeen barruan, herri eta eskualdeen arteko bizikleta bideen sarea garatuz. Horretarako beharrezkoa da, azpiegitura egoki eta bidegorriak garatzearekin batera, errepideak autoekin partekatzeke ereduak bultzatzea, garraio publikoetan bizikleta eramateko baliabideak ipintzea, azpiegitura nagusietan bizikleta aparkalekuak egitea, eta eraikin publiko zein komertzial guztietan bizikletentzako aparkaleku egokiak egiteko beharra arautzea.

4 proiektu nagusi (ez bakarrak):

- ✓ Airaldea-Nerbioi Parkea
- ✓ Herreros tunela (Kantabria)
- ✓ Lotura Galdakao-Bilbo
- ✓ Lotura Enkarterri. Alonsotegi-Zorroztza (La Roblaren bide zaharretik)

■ Udalentzako dirulaguntza lerro bat irekiko dugu Bidegorrien Udal Sarea burutzea errazteko.

Garraio publikoa bultzatuko dugu. Garraio publikoan orokorrean eta autobusetan bereziki, kudeaketa publikoa bultzatuko dugu, zerbitzuaren kalitatea zein maiztasuna hobetuz eta ibilgailu elektrikoak lehenetsita.

Eskualdeen arteko konexioa eta kohesioa lortzeko Bizkaibusek aurrekontu igoera izango du.

Trenbide azpiegitura guztien azterketa sakona egitea ezinbestekoa da, egungo lineak indartzeko eta lurralde honek beharrezko dituen azpiegiturak diseinatu eta gauzatzeko.

Guretzat trenak ardatz egituratzailea izan behar du.

■ Egungo trenbide sarearen eskumena eskatzen jarraituko dugu, egun Bizkaian ditugun linea desberdinetan hobekuntzak ezartzeko. Horien artean, Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu trenbide pasaguneak ezabatzea edo behintzat segurtasuna hobetzea, eta tren zerbitzuaren maiztasunak handitzeko hobekuntzak egitea.

■ Bizkairako aurreikusitako trenbide proiektuak (metroaren linea berriak,

aireportukoa, tranbiak, eta abar...) be-  
rraztertuko ditugu eta gizarte errenta-  
garritasunaren printzipioan oinarritu-  
ko ditugu proiektu berriak. L3 linearen  
luzapena izango litzateke horietako bat.

Sarratuko intermodaletik Usansoloko os-  
pitaleraino iritsiko litzateke, eta Euskotre-  
neko zerbitzuarekin lotura zuzena izango  
lukeena, Aperribai eta Bengoetxen gelto-  
kiak izango lituzkeena ere. Era berean, ga-  
rrantzitsua izango litzateke Rekaldera  
iritsiko litzatekeen metro linearen infor-  
mazio azterlana lehenbailehen bukatzea,  
alternatibarik egokiena adosteko prozesu  
parte-hartzaile baten bidez. Eta ondoren,  
beharrezko izapide administratiboekin ja-  
rraitu eta baliabide ekonomikoak bideratu.

Errepideen eraikuntza basatiak finantzaketa arazo larri batera eramán gaitu: irtenbide integral bat behar dugu finantzaketa iturriak finkatzeko, eta horretarako EAE-ko erakunde guztien arteko elkarlanean proposamen bateratua diseinatzea planteatzen dugu, lurralde arteko desplazamenduetan eta lurralde barruan oreka eta berdintasun printzipioak aplikatuz egun dagoen diskriminazioarekin bukatzeko.

Sistema orekatu eta justuago bat lortzeak garraio publiko eraginkor baten aldeko eredia garatzeko behar den oreka finantzarioa lortzeko bidea emango digu. Bidesarién politika berriak gaur egun Bizkaiko ekialdean bizi diren herritarrek pairatzen duten diskriminazioa gainditzeko urratsak emango ditu.

2026an amaitzen da egungo emakida, kudeaketa publikoa planteatu behar dugu, egungo errealitatera egokitutako tarifekin. Bidesarién sistema birpentsatzeko

unea da, autobide guztiak BFaren esku dauden honetan.

Hala ere, Bizkaian badaude azpiegitura berri batzuen beharra, errentagarritasun sozialean oinarriturik. Adibide esanguratsuena, Errekaldeko zubiaren eraisketa-  
ren beharra da.

Hala ere, edozein azpiegitura gauzatu baino lehen, ondo aztertu behar dira egon daitezken ingurumen kalteak.

Garatu beharko den beste gai bat da, edozein azpiegitura eraiki baino lehen, gizartearen parte- hartzea bermatzeko neurriak ezarri behar direla, erabakien gardentasuna bermatzeko.

Gaitasun handiko errepideek gure lurraldean eragin dituen ingurumen zein osasun kalteak leuntzeko hainbat neurri eramango ditugu aurrera, hala nola, fauna bideak eraikitzea eta soinu plakak zein horma begetalak jartzea.

Portuen eta itsas garraioaren kudeaketa integralerako urratsak ematea lehentasunezkoa da, eta horretarako eskumena aldarrikatuko dugu. Baita trenbidearena ere.

# 03

# Ekonomia sustapena

## 3.1 Industria

### A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Zaila da Euskal Herriko egoera ekonomikoa definitzea. Gure herrialdea, orokorrean, ekonomia aurreratuenen multzoan kokatuko litzatekeen arren, egoera sozialak eta ekonomikoak okerrera egin du 2008an sortutako krisiaz eta 2020an hasitako COVID19ko pandemiaz geroztik.

Pertsonako Barne Produktu Gordina aztertzen badugu, ikus dezakegu EAE Europako batezbestekoa baino %24 gorago dagoela; gure erkidegoa 72. postuan dago Europar Batasuneko 244 eskualderen artean, baina 2008an batezbesteko hori baino %30 gorago zegoen eta 34. postuan zegoen, Erresuma Batua barne. Nahiz eta azken aldiari susperraldi makroekonomikoa izan, krisiaren arintzearekin hartu diren politi-

kek eliteetarantz bideratu dute susperraldi horren mozkin osoa, eta langileei murrizketak eta atzerakadak aplikatu dizkiete; murrizketa eta atzerakada horiek, gainera, ez dira leheneratu oraindik. Eliteek pandemiari eta Ukrainiako gudari leporatu dizkiete egoera hauek, dagokien erantzukizuna beregain hartu gabe, aurretik jadanik antzematen ziren joera eta emaitzak izan arren. Orain zantzuek desazelerazioa datorrela adierazten dutenez, are premiazkoagoa da lan baldintzak eta soldata baldintzak hobetzearen alde lan egitea, baita zerbitzu publikoak bermatuko dituen politika fiskal baten alde lan egitea ere.

Oraina hobetzeko eta etorkizuneko arazoei aurrea hartzeko, industria indartzea apustu estrategiko bat da euskal ekonomiarako eta gizarterako. Euskal ekonomiaren posizio erlatibo onuragarria ez da erakunde kudeaketa on batean oinarritzen, behin eta berriz saldu nahi diguten bezala, gure lurraldeko

industria indarrean baizik. Industriak bali erantsia eta soldata handiagoak sortzen ditu, eta gainera, zerga baliabide handiagoak sortzen ditu enpresen aldetik nahiz soldatapeko langileen aldetik. Krisiak beste leku batzuetan batez ere zergen eta higiezin arloan izan zuen garrantzia, baina gure herrialdean industria sarean izan zuen eragin handia, krisialdiaren hasieran jaitziera handia izan baitzuen. Eta aipatutako susperraldi "makro" hori industriara iritsi bada ere, produkzioari dagokionez industria leheneratu baita, oraindik ez da lehenera etorri azken hamarkadan galdutako industria enplegua. 2008an, 225.000 pertsonak egiten zuten lan EAeko industrian; 2016aren amaieran, aldiz, 190.000 pertsonak. 2018aren amaieran, EAEn lan egiten zuten pertsonen %22,1ek industria-sektorean egiten zuten; datu hori hain urrun ez dauden beste garai batzuetako erregistroen oso azpitik dago. Kopuru honek gora egin zuen arren, 2022. urtean bertan, industriak 6.000 lanpostu galdu zituen (198.500 langiletik 2022ko lehen hiruhilekoan, 192.000 langilera urte amaieran).

Beste datu kezkarri bat industriaren dimentsio teknologikoa da. Propaganda ofiziala gorabehera, industria sektorean enplegatutako pertsonen heren batek soilik egiten du lan teknologia eduki handikotzat edo ertain-handikotzat hartzen diren azpisektoretan; Euskadiko industria enpleguen bi heren maila teknologiko txikiko edo ertain-txikiko sektoreen mende daude, horrek epe ertainera dakartzan arriskuekin. Bizkaian, 80.000 pertsonak baino gehiagok egiten dute lan industrian, baina teknologikoki aurreratuago dauden sektoretan (maila ertain-handikoak edo handikoak) lan egiten dutenen ehu-

nekoa ez da %25era iristen. Biztanleriari eta BPGri dagokionez, aldea gorabehera, 2021an, Bizkaiak ia Gipuzkoak adina inbertitu zuen I+Garen alorrean (batak 771'8 milioi eta besteak 702 milioi), eta enpresei dagokienez, nahiz eta Bizkaiko enpresen dentsitatea askoz ere handiagoa izan, Gipuzkoakoen antzera inbertitu zuten (Bizkaikoek 410 milioi, eta Gipuzkoakoek 406 milioi). Bizkaiko enpresek I+G+B jardueretik duten gainbehera agerikoa da. Tradizionalki industrialak izan den Bizkaia desagertzen ari da, baina industriak oraindik ere ibilbidea duela erakusten digute inguruko lurraldeek.

Bizkaiak I+Garen alorrean egin duen gastua BPGren %1'95 da; zifra hori Europako erreferentziazko zifra den, eta Legebiltzarrean EH Bilduren ekimenez 2017an bultzatzea adostu zen %3tik oso urrun dago, Euskadiko zein EBko batezbestekoaren azpitik eta Europako puntako herrialde eta eskualdeen eta Txinaren batezbestekotik oso behera. Soilik desberdintze teknologikoak berma dezake euskal industriak biziraungo duela produkzio kostu txikiagoak dituzten lehiakideen aurka, Europako herrialde eta eskualde batzuetan egin den moduan.

Gainera, Bizkaiko lurraldean desoreka handiak daude eskualdeen artean; oro har, esan daiteke eskualdeko BPGan industriak pisu handiagoa izateak ekartzen duela adierazle sozioekonomiko hobeak izatea (langabezia, errenta, pobrezia...) eta alderantziz. Ildo horretan, Bizkaiko metropolialdea, bereziki Bilboaldea, Hego Uribe eskualdea, Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterri, herrialdearen atzetik daude.

### B. HELBURU OROKORRA

2008. urtean euskal industriak jaitsiera handia izan ondoren, 2015. urtetik aurrera susperraldi iraunkor baina arinari ekin zitzaion, baina 2020ko martxoan, COVID-19ak eragindako pandemia dela-eta, berriro ere gainbehera etorri zen. Bai 2008ko krisiaren ostean, zein pandemiaren salbuespen neurrien ostean gertatutako susperraldia desberdina da pertsonen artean (ez da modu berean iristen langileengana eta enpresaburuengana), eta eskualdeen artean.

Argitu behar da susperraldi hori kanpoko faktoreek eragindakoa dela, batez ere euskal industriaren bezero diren herrialdeen aurretiko susperraldiak eta bestelako zirkunstantzia exogenoek eragindakoa (petrolioaren prezioen jaitsiera, euroaren devaluazioa, zerga pizgarriak, interes tasa txikiak...). Horregatik, hemorragia eten bada ere, gure industria sareak egiturazko arazoak izaten jarraitzen du; egungo ahu-leziak eta etorkizuneko mehatxuak diren arazoak, hain zuzen ere. Arazo horiek antzematea eta zuzentzea izan beharko luke industria politikaren ardatza, lidergo publiko argi batetik abiatuta, sendoagoa eta bidezkoagoa den industria eredu berri baterantz aurrera egiteko.

Honako hauek dira industria eredu horren ardatz handiak:

- **Teknologikoki aurreratua izatea:** BPG-ren % 3ko inbertsioa egitea I+G+bn, eta 5.0 industiarako trantsizioa bultzatzea.
- **Lurraldean orekatua izatea:** industria eskualde desindustrializatuetara itzul dadin sustatu.

- **Sozialki bidezkoa izatea:** langileen eskubideak eta partaidetza areagotu.
- **Zerga aldetik arduratsua izatea:** enpresa irabaziekin zerbitzu publikoei eusten lagundu.
- **Ingurumenaren aldetik jasangarria izatea:** ingurumen eragina eta energia kontsumoa murriztu eta energia trantsizioa aukera bat izan dadin lortu.
- **Enpresen trantsizio ekologikoan bidelagun izatea,** bai negozio eredu birmoldaketari zein lan merkatuan izan ditzakeen eraginei begira.
- **Produkzioaren aldetik dibertsifikatua izatea:** sektore gutxi batzuen inguruan elkartzea gainditu eta soilik tarteko osagaien fabrikazioan indartsuak ez izatea lortu.
- **Euskal Herrian errotuta egotea:** gure premia eta erabakietara egokitutako Euskadiko industria politikarekin eta lan harremanen berezko esparruarekin. Gure herrialdeari atxikita eta gure herrialdea errespetatuz.

### C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK:

Industria politikak industria eredu berri bat lortzera bideratuta egon behar du. Eredu horrek osagai teknologiko handia izango du, lurraldearen eta produkzioaren aldetik dibertsifikatuta egongo da, ingurumena errespetatuko du, energia gutxiago kontsumituko du, gizarte arloan eta zerga arloan arduratsua izango da, euskaldunagoa, berdinzaleagoa eta parte-hartzaileagoa.



goa izango da. Hori guztia lortzeko, gizarte ekonomia eta tokiko garapena sustatu beharko ditu gizarte eragileekin hitz eginenez eta adostuz; eta ondo koordinatuta egoteaz gain, ikuspegi estrategikoa duen lidergo publiko baten gidaritzapean.

Helburu orokorrak ildo orokorrekin elkar-tzeak honako neurri hauek proposatzeko bide ematen digu:

- **Eskualdeak:** Bizkaiko eskualdeen ber-rrindustrializazioak lehentasunezko helburua izan behar du. Bizkaiko Foru Aldundiak Ezkerraldea-Meatzaldeko Plan Estrategikoari laguntzea, proiektu traktoreen inguruko balio katea sendotuz. Balio kate sendorik gabe ez dago garapenik. Eremu horietako industria lurzoruari garrantzia ematea, esate baterako Gernikako Ibarrari eta Basauri-ko Baskoniari. Inbertsioak erakartzeko politika. Arlo guztietako diskriminazio positiboa egitea alde behartsuenei. Proiektu bultzatzaileak ezar daitezen lortzea.
- **Industria** lurzoruaren eskaintza arrazionalizatzea: dagoen lurzoruaren inbentarioa egin, deskontaminatzeko premia duten lurzoruak tratatzeko. Eskaintzaren eta premien ebaluazio errealista egin. Inbertsioak alde behartsuenetara bideratu. Aldundiak gain-begiratu du lurralde antolamendua norabide horretan egiten dela; hau da, industria lurzoruaren eskaintza behar adinakoa eta orekatua izatea eta industria lurzoru hirugarren mailakoa bihur dadin saihestuz.
- **Ingurumen** arloan, gure lurraldean lindanoak utzitako arrastoa ezabatu

nahi dugu. Horregatik, lindanoarekin kutsatutako lursail guztiak identifikatu nahi ditugu, herriz herri eta kutsadura garbitzeko ahaleginak egingo ditugu, arduradunei erantzukizuna eskatuz.

- **Behargintza** Eskualdeko sustapen agentzien sarea sustatzea. Finantza-keta eta koordinazioa hobetzea. Mapa arrazionalizatzea agentziak sortuz edo agentziak errepikatzen badira, elkarrekin batuz. Eskualde guztietan planak garatu, tokiko agenteek parte hartuz eta industria politikaren azterketa espezifikoa eginez. Industriako enplegura bideratutako prestakuntza sustatzea. Politika guztien emaitzak ebaluatzea etengabe.
- Behargintza eskualdeetako sustapen agentzien, mankomunitateen eta udalen papera sendotu bai Eskualdeko Plan Estrategikoen diseinuari zein garapenari begira.
- **I+G+Bn** %3ko inbertsioa egin dadin lortzea. I+Grako laguntzei buruz ETEei ematen zaien informazioa hobetu. Ikerketaren kultura sustatu, zentroei eta proiektuei lagundu. I+Gn inbertsioa egin dadin sustatzea lortzeko eragile publikoak, akademikoak, gizarte arlokoak eta enpresa arlokoak elkarrekin aritu daitezen lagundu. Sektore helduagoak dituzten eskualdeetan teknologia enpresak ezar daitezen sustatzea.
- **I+G+Baren** ardatz nagusiak eta eskualdeetako plan estrategikoak lerrokatzea, honela I+G+B politika koherente eta arrazionala garatuz.

- **Sektore helduetako enpresen kasuan**, jarduera berrietara bideratutako negozio dibertsifikaziorako, **nahikoa aurrekontu duen funtsa baliatuko dugu benetako programa bat mar-txan jartzeko.**
- **Negozio trantsizioak** egiten dituzten enpresentzako langileria trebatzeko dirulaguntza programa bat jarri, edukien aldetik lanbide heziketa zein eragina izan dezaketen hezkuntza zentroekin koordinatuta, STEM perfilak indartzuz.
- **Krisian dauden enpresei** arreta emateko protokolo integrala: Industria krisien aurrean esku- hartze sistematikoa. Enpresa batzordeetara hurbildu eta haiei lagundu. Eusko Jaurlaritzarekin koordinatu. Langileei aholku eman. Zuzeneko inbertsioko eskaintzak egin. Enpresari jarduera berarekin edo beste jarduera batekin eusteko proiektuei lagundu. Porrot egin duten enpresak abian jarri nahi dituzten langileei babesa eman. Industria sektorean beste lanpostu bat emateko bermeak.
- **Lan gatazka egoeran dauden enpre-sen** kasuan, gatazka bakoitzari momentu bakoitzean dagokion adierazpen instituzionaletik harago, benetan dagokion erantzuna emateko protokolo eta lantalde iraunkorra eratu.
- **Foru Aldundiaren inbertsio funtsak** enpresak sortzeko eta finkatzeko. Arrisku kapitalaren eta garapen kapitalaren funtsak indartu. Hasierako laguntza eman enpresak sortzeko eta enpresa estrategikoetan industria partaidetzak eskuratu. Beste funts publiko batzuekin koordinatu.
- **Arriskuan dauden enpresentzat** 50 milioi euroko funtsa sortuko dugu.
- **Energia trantsizioa.** Energia trantsizioaren esparrua sustatu. Energia kontsumoa eta ingurumen eragina murrizteko proiektuei laguntzea lehenetsi. Energia trantsizioaren premiez baliatu sektore berriak sustatzeko: enplegu berdea, energia berriztagarriak. Tokiko eta gizarte izaerako energia enpresei eta sortze deszentralizatuari lagundu.
- **Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen eremuan garraioaren elektrifikazioaren eraginari buruzko azterketa bat egin:** garraio publikoa, errepideak, Foru Aldundiaren flota... Kalteak eta aukerak aztertu. Bizkaiko industria eta antzemandako premiak elkar daitezen lortu.
- **Barneko energia auditoria:** Aldundiko instalazioen, ibilgailuen eta jardueraren eragina ebaluatu eta murriztu, berriztagarriak jarriz eta ibilgailu elektrikoak erabiliz.
- **Lanbide Heziketako zentroyen** maparen erradiografia egin, premiak antzemateko eta premia horiek Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean arituz konpontzeko. Guk uste dugu beharrezkoa dela Gernikan eta Enkarterrin zentro berriak ezartzea. Etengabeko prestakuntza eta formakuntza Duala bultzatu.
- **Bertako produktu jasangarria** erostearen kultura sustatu, euskal industriari erostea lehenetsita, BFAREN beraren erosketa-politikatik hasita eta gizarte osoaren filosofiara hedatuz.

- **Emakumea industria eremuan** sardadin sustatu (gaur egun %20 soilik). Emakumeak STEM eremuan sartzen lagundu. **Gizartea sentsibilizatu, berdintasun-klausulak sartu, berdintasun ziurtagiria eskatu kontratatzeko.** Foru Aldundiko enpresetako, partaidetzako enpresetako eta beste erakunde batzuetako zuzendaritza organoetan ordezkari izatea. Emakumezko enpresaburuen elkarteekin eta sindikatu etako berdintasun arloekin zuzeneko harremana izan.
- **Industria bultzatzeko beharrezkoak diren zerbitzu aurreratuak** (Knowledge Intensive Business Services-KIBS) jardueren sorrera eta garpenerako baldintzak erraztea.
- **Bizkaia dorrean** (BAT) martxan jarriko diren jarduerak jadanik martxan dauden Bizkaiko eta Euskal Herriko industriaren bidelagun izateko baldintzak betetzea eta etorkizunari begira aurreikusten diren sektore estrategikoekin lerrokatuta egotea.
- **Industria eremuan euskararen erabilera** sustatzeko politikak: mintegiak, argitalpenak, eguneroko erabilera.
- **Bizkaiko industria sektoreak Euskal Herriko gainerako lurraldeetako** industria sektoreekin sinergiak izan ditzan sustatu. Made in Basque Country marka modu partekatuan indartzea euskal industriaren kanpoko irudia indartzeko.
- **Bizkaiko Industria sektoreak “Made in Basque Country”** markarekin batera, I+G+b jarduerak bultzatu, “Thought in Basque Country” marka ere indartzea, enpresa, unibertsitate eta ikerketa zentroi behar duten laguntza eta dagoen zentralitatea emanaz.
- **Deslokalizazioak:** deslokalizazioen aurkako foru araua zorrotz aplikatu. Laguntza publiko oro jasotzeko baldintzak lurraldean jarraitzea eta gizarte funtzioa betetzea izan daitezela.
- **Enpresa Txiki eta Ertainei** aholkularitza eta laguntza emateko plan espezifikoak laguntzak eskuratzeko, berrikuntzarako, negozio eredu enbirmoldaketarako, trantsizio ekologiko eta energetikorako, nazioartekotzeko...
- **Ekonomia kooperatiboa** eta gizarte ekonomia sustatzeko plan espezifikoak eta ekonomia mota hori industria alorrean sartzea edo finkatzea.
- **BBK fundazioaren** gobernantza demokratizatu Kutxabanken kudeaketa euskal industriaren premietatik hurbilago egoteko. Kutxabanki eskaera zehatza egin partaidetzako enpresen zorroa legezko gehienekoetan eusteko eta BBKri eskatu industria inbertsioko bere funtsa sor dezala eta industria enpresen errotzea indartzera bideratutako funts publikoetan parte har dezala.
- **Teknologia edukia duen gune bat sortu** industriarako edo Bizkaiko Teknologia Parkearen azpi-egoitza bat, lehen Babcock Wilcox enpresa kokatuta zegoen Galindoko eremuan (Ses-tao-Trapagaran) eta lur mugakideetan.
- **Durangaldean** energia berriztagarriekin eta airearen kalitatearen hobekuntzarekin lotutako parke zientifikoa eta formakuntzarako gunea bultzatuko dugu.

## 3.2 Zerbitzuak eta turismoa

### A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Landunen %15-20 autonomoak/ekin-tzaileak dira eta garrantzia handia dute sozioekonomian. Zehazki EAEn, autonomoen tasa %19 zen 2016an, 175.000 landun; horietatik 55.000 kooperatibistak dira, eta gainerakoei dagokienez, autonomo gehienak zerbitzuetan aritzen dira (merkataritza, ostalaritza, gremioak,...). Oso politika gutxi bideratzen dira autonomoengana eta autonomoek ekonomian duten garrantzia kontuan hartzen badugu, esan behar dugu beharrezkoa dela lehentasunez eta espreski pertsona horiengana bideratuta dauden politikak abian jartzea.

Langabezia tasarekin alderatzen badugu, ikus dezakegu langabezia tasa handiak dituzten herrialdeek autonomo tasa handiak dituztela eta, alderantziz, langabezia tasa txikiak dituzten herrialdeek autonomo tasa txikiagoak dituzte. Beraz, ondoriozta dezakegu Lan Autonomoa aukera bat dela langabezia dauden pertsonentzat, betiere lan horrek politika publiko egokien laguntza jasotzen badu. Ezinbestekoa da proiektu bideragarri bat duen ekintzailea edo autonomoa, batzuetan erakundeen enplegu-planek babesten dituzten irteera faltsuetatik bereiztea. Irteera horiek langabezia zifrak aldi batean itxuraldatzeko besterik ez dute balio eta gerta daiteke protagonistak hasieran zeuden egoeran baino egoera okerragoan bukatzea.

Oso kezagarria da sektore askok azken urte hauetan bizi duten egoera: langileek jasaten dituzten lan baldintzak txarrak dira, negozioak ixten ari dira etengabe, ez dago txandarik, handiak ez dio lekurik uzten txikiari...; aldatu egin behar da egoera hori.

Turismoari dagokionez, argi dago zer ondorio izan dituzten orain arte jarraitu diren politikek: turismoa ohiko hiriguneetan eta kostaldeko herrietan biltzen da EAEn eta jasangarritasun irizpideetatik urrun dago.

Turismoa lehen mailako jarduera ekonomikoa da, gure BPGren %5etik zertxobait gorago dagoena. Gorantz egiten ari den eta etengabe aldatzen ari den sektore ekonomikoa da. Ia sektore ekonomikoz guztiak bezala, turismoak abantailak eta eragozpenak ditu: Berehalako eragozpenak masifikazioa, enpleguaren prekarizazioa eta kontratatzeke nahiz ostatu emateko eskaintza berrietarako erregulaziorik ez izatea dira.

Hainbat sektoreren artetik, turismoa lanpostuak sortzen dituen eta deslokalizatu ezin den sektore bakarretakoa da. Gure turismo eskaintza ezin da beste inora eraman. Horregatik, jakin behar dugu baliabide horrek bere mugak dituela eta ezin dugula zentzugabeki usiatu. Gaur egun indar batzuk ditugu: turismoa gorabidean dagoen sektore bat da eta baliabide horrek potentzial handia dauka; indar horretaz baliatu behar dugu turismo jasangarriaren, zuhurragoaren eta zentzuzkoaren alde egiteko.

## B. HELBURU OROKORRA;

Beren jarduera zerbitzuetan betetzen duten langile eta profesional asko autonomoak dira eta politika publiko eraginkorrak behar dira pertsona horien lanaren garrantzia azpimarratzeko. Autonomoaren/ekintzailearen figura duin bihurtu behar da, aberastasuna sortzen duen pertsona delako; horretarako, gaur egun daukan gizarte babesa areagotu egin behar da.

Turismoari dagokionez, sektoreko agente guztiek onetsi zuten lege bat onartu genuen, eta baliabide guztiak jarri behar dira lege hori garatzeko, irizpide orekatu eta jasangarrietan oinarrituz une oro.

Horri dagokionez hartu behar diren neurriak hauek izango lirateke: eskaintza dibertsifikatu eta arrazoizko bat egin, turismoa industriatzat hartuta (halaxe baita) eta industria gisa araututa; prestakuntzan oinarrituta dagoen enplegua eta lan baldintzen hobekuntza sustatu; izan ere, zerbitzuen sektoreak, bere atomizazioa dela medio, are gehiago pairatzen ditu lan merkatuaren baldintza negargarriak.

Azkenik, ostatu emateko modu berriak, hala nola etxe turistikoak, hostelak, caravaninga eta aterpeak, arautu egin behar dira hotel tradizionalak, landa turismoa eta kanpinak araututa dauden bezala, ostatatze mota horiek arazotzat har ez daitezten. Halaber, teknologia berrien erabilerara administrazioek arautu behar dute erabiltzaileen eskubideak bermatzeko eta turismoaren azpiegitura guztiei eusten laguntzeko. Etxe turistikoen kasuan, ezinbestekoa da jarduera horren garapena kontrolatzea turismo eskaintzak bizitegi eskaintza ez ordeztzeko eta turistei ostalua eskaintzearen tokiko biztanleek auzo

osoak ez hustu behar izateko eta handik mugitu behar ez izateko.

Dena den, turismoak aukera asko eskaintzen ditu: Aukera ekonomikoak, kultura ondarea eta arte ondarea hedatzea eta kontserbatzea, bertako gure produktuak eta gure gastronomia sustatzea, gure natura ingurunea eta paisaia ingurunea zaintzea eta hobetzea, eta herrialde gisa saltzea gure burua.

Gure turismo eskaintza egiteko, ezin dugu soilik aipatu gehien ezagutzen dena: hiri handiak; badaude beste baliabide eta esperientzia batzuk ere hirietan aurki daitezkeenak bezain onak edo hobeak direnak. Euskal Herria osoa, nondik gatozen, nortzuk garen eta norantz joan nahi dugun eman behar dugu ezagutzera. Horregatik guztiagatik, turismo fluxuak beste helmuga batzuetara birbideratzeko eta jarduera aniztasuna duen turismo multimarka bat turismo helmuga berean eskaintzeko unea iritsi da.

Laburbilduz: turistak gurean urte osoan izateko, turismo-jardueraren kudeaketa arduratsua eta garapenarekin lotuta ez dagoena egin behar da, fluxuen lurralde dibertsifikazioa (fluxuak turistikoki hain aktiboak ez diren lekuetara bideratuz eta saturaziotik hurbil dauden lekuetan presioa deskargatuz) eta urtarokoa ez izatea bilatuz. Turismoa kulturalki eta ekonomikoki aberasten duen jarduera bat da, baina ingurumenaren eta gizartearen alorrean arazoak sor ditzakeena, baldin eta arrazoizkoa denaren mugak gainditzen baditu. Turismoak aberastasuna eta enplegua sor ditzake, baina ez du hiri inguruneetan tokiko biztanleriaren bizi kalitatea galtzearen eta natura ingurunea aldatzearen kontura egin behar.

### C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

**Turismoari buruzko plan estrategikoak garatu, euskal legea ikuspegi jasangarri, sozial eta arduratsu batekin garatuko dutenak.** Turismoak duen garrantzi ekonomikoa eta ahalmena ezagutzeaz gain, enplegua sortzea ahalbidetuko duten diagnostiko zehatzak egin, neurri zehatzak definitzeko eta garatzeko abiapuntu gisa. Neurri hauek bildu ahal izango dituzte:

- Turismo bulegoen eskaintza dibertsifikatu era askotako jarduerak sustatuz modu ordenatuan eta jasangarrian. Jarduera horiek egon litezkeen merkatuak hartuko dituzte kontuan eta gure kultura ondare aberatsarekin antolatuko dira, natura ingurunea eta lehen sektorea errespetatuz beti.
- Lurraldeko turismo eskaintzaren aniztasuna ezagutzera emateko kanpainak abian jarri, turismo fluxuak banatzeko berariazko asmoa izanik.
- Gune edo mekanismo espezifikoak sustatu hainbat gizarte eragilek, base-ritarrek, arrantzaleek, tokiko garapen agentziek eta turismo sektorearen ordezkariak parte hartzeko planak eta programak definitzeko; esate baterako, turismo sektoreko mahai parte-hartzaileen eta zeharkakoen esparruan.
- Dagoen araudia garatu eta falta dena sustatu turismo jasangarriaren, arduratsuaren eta dibertsifikatuaren eredu indartzen jarraitzeko.
- Premiak diagnostikatu ondoren, genero ikuspegia duten etengabeko prestakuntza planak sustatu eragile interesdun guztiek parte hartuz.

- Zerga alorrean ahalegin ikuskatzailea areagotu Internet bidez kontratatutako turismo jardueri dagokienez eta zerbitzu horiek eskaintzen dituzten plataformei dagokienez, eremu horretan erantzukizunak behar bezala hartuko direla bermatzeko.
- Turismoaren masifikazioa zaindu, honetarako biztanleriarengan, ingurumenean eta ondare kulturean izan ditzakeen eraginak kontrolatzeko eta ahal den neurrian murrizteko.

#### **Elkarlanean aritzeko barneko eta kanpoko sinergiak ezartzea:**

- Udalen eta Mankomunitateen, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa indartu gure turismo eskaintza aurkezteko modu koordinatuan, bikoiztasunik gabe eta baliabideak optimizatuz.
- Sareko lana sustatu sektoreko operadore guztien artean gure ingurunean, aliantzak sortuz.
- Turismo ekintza Nafarroarekin eta Iparralderekin koordinatu turismoaren euskal eredu berezia, kalitatezkoa eta jasangarria eskaintzeko.
- Europako beste leku batzuekin sinergiak sortzen lan egitea, gure turismo eredu sustatzeko.

#### **Laguntza ekonomikoetako ildoak eta etengabeko aholkularitza zerbitzuak ezarri, gure ereduarekin bat datozen turismo zerbitzuak eta enpresak sustatzeko:**

- Sektorean lan egiten duten pertsonen prestakuntza sustatu.
- Turismo enpresei eta zerbitzu enpresei (gehienak txikiak eta ertainak) lagun-

du, baita teknologia berriak sartzen ere, teknologia horiek etengabe ari baitira aldatzen sektore honetan.

### **Gure indarrak bultzatu eta gure turismo baliabideak sustatu:**

- **Natura:** Bizkaiko natura inguruneak indar handia dauka eta bisitariak gure herrialdera erakartzeko balio du. Ingurune osoa zaindu behar da, eta turismo baliabide naturalen babesa eta zaintza, baliabide horietarako sarbidea, zaintza eta kontserbazioa sustatu behar da.
- **Barneko turismoa:** Lurraldean landetxe sare egokia dagoen arren, potentzial handia dauka oraindik, bereziki hainbat eskualdetan, esate baterako Enkarterrin edo Meatzaldean. Turismo berdeak ibilbide oparoa dauka, Nafarroan, Asturiasen eta beste leku mugakide batzuek lortu dutena ikusi besterik ez dago, leku horietan okupazio indizeak gureak baino handiagoak baitira.
- **Kostaldeko turismoa:** Euskal kostaldea, eguzkia eta hondartza dituen helmuga ez bada ere, garrantzi handiko turismo arku da Hegoaldetik Iparraldera. Euskal kostaldeko paisaiaren eta hondartzen erakargarritasun naturalari eta bertako herrien eta hirien xarmari esker mugaz haraindikio baterako eskaintza egin daiteke azpimarka zehatz batekin: Euskal Kostaldea, Côte Basque,...
- **Industria turismoa:** Industria Bizkaiaren nortasun ezaugarrietako bat da, iraganean eta orain. Turismoak eta industriak elkarrekin ahalbidetu-

ko lukete industria-ondare aberatsa suspertzea, bereziki Ezkerraldean, Meatzaldean edo Bilbon, eta, aldi berean, turismo fluxua bisitariz beteta ez dauden eta suspertze ekonomikoaren premiak dituzten lekuetara bideratuko luke.

- **Gastronomia:** Euskal sukaldaritza, gaur egun, ezaguna da mundu osoan. Gure produktuen kalitatearengatik ere ezagutzen gaituzte. EAEko, Iparraldeko eta Nafarroako lurraldeen artean elkarlanean aritzeko estrategiei aurre egiteko unea iritsi da. Euskal lurralde osoan egiten den Idiazabal gazta edo Txakolina horren erakusgarri da, baita barazki eta arrain kontserbak, Errioxako ardoak eta bestelakoak ere.
- Oraindik gehiago eskain dezake: kostaldeko turismoa eta paisaia turismoa; turismo berdea eta natura turismoa Bizkaiko barnealdean; lehen sektoreko produktuen potentziala eta sukaldaritzaren sustapena Bizkaian, gaur egun beste lurralde batzuetako sukaldaritzaren maila berean dagoena, edo itsasadarra turismo ardatz gisa, garatu behar diren erronka batzuk dira berezko marka duen eta gure ingurunearekin sinergian dagoen turismoa gartzeko.

### **Zerbitzuen sektoreko langileen egoera sozio-laborala duintzea**

- Lan hitzarmen duinak eta bidezkoak lortzearen aldeko borroka egiten lagundu eta lan harremanen eta gizarte babesaren berezko esparru bat aldarrikatzen jarraitu.

- Hotel kate handietan zerbitzu batzuen azpikontratazioa, hala nola garbiketa eta ikuztegi zerbitzuena, zaintzea lan ikuskatzailetzatik, indarrean dauden hitzarmenak bete ditzaten.
- Sektorean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko premia defendatu; horretarako, kontziliazio neurriak, laguntza espezifikoa eta abar ezarriko dira, besteak beste.

### 3.3 Merkataritza

#### A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Bertako merkataritzak egoera zaila bizi du gaur egun, eta bidegurutze batean dago gainera. Barne- kontsumoak oso jaitsiera handia izan zuen krisialdearen ondorioz, eta aldaketa handia gertatu da herritarren kontsumitzeko ohituretan.

Egoera orokor honen aurrean, tokiko merkataritza bultzatu beharreko jarduera da gure ustez. Batetik, aipatu bezala, herriei, auzoei eta kaleei bizitza ematen die-lako eta harreman pertsonalak garatzeko aukera gehiago ematen dituelako. Tokiko merkataritza ekologikoa da, oro har, globalizazio ekonomikoaren produktueta-ko eginga ez dagoelako eta ordutegien afe-  
rak erakutsi duen moduan.

Azalera handiak irekitzen direnean, lan-  
postuak sortzen direla esaten digute, bai-  
na oro har ahaztu egiten da bertako mer-  
kataritzan zenbat jende lan egiten duen  
eta zein garrantzia daukaten gure herrien  
ekonomian.

Azalera handiko merkatal zentroak sis-  
tema kapitalistak bultzatzen duen kon-  
sumismo basatiaren isla dira. Erosketa  
eta aisialdia uztartu nahi dituen filosofia  
bera, horren isla nabarmena da, non pro-  
posatzen zaigun soilik kontsumoan oina-  
rritutako aisialdia.

Oro har, azalera handi hauek mundu mai-  
lako enpresa eta produktuentzat gune edo  
saltoki dira; izan ere, era honetako mer-  
kataritza guneetan ekoizle txikientzako  
baldintzak hain zorrotzak dira ze, euren  
produktuak saltzeko oso aukera gutxi di-  
tuztela.

Herri askotan dendari, kontsumitzaile  
eta merkatarien elkarteak sortu dira. El-  
karlana helburu duten neurrian eta sarri  
jarduera soziala eta kulturala bultzatze-  
ko egitasmoak lantzen dituztenez, gure  
babes osoa behar dute izan. Merkatar  
elkarteekin batera elkarlana bultzatzea  
garrantzitsutzat jotzen dugu, baita gure  
eredu sozial eta ekonomikoaren norabi-  
dean urratsak eta ekimenak bultzatu eta  
laguntzeko ere.

Martxan jarri diren hainbat ekimen ez  
dira ondo planteatuta egon. Honen adi-  
bide EUP plataforma da, zeinak ez dituen  
Bizkaiko merkataria erakarri; guztira  
19.000 merkataritzako establezimendu  
daude Bizkaian; motordun ibilgailuak,  
handizkako merkataritza eta antzekoak  
kenduta, 12.000 inguru, eta hauetatik 560  
establezimendu bakarrik atxikitu dira  
EUP plataformara.



## B. HELBURU OROKORRA

Udalekin, eskualdeko mankomunitate edo garapen agentziekin eta erkidegoko gobernuaren inplikazio ekonomikoaz, herrialdeko tokiko merkataritza eraberritze-ko eta bultzatzeko plan estrategikoa burutzea dugu helburu.

Bertako merkataritza bertako produktuen salmentarekin batera sustatzea dugu helburu, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko lotura gertuko merkataritzaren bidez burutuko delarik.

Langileen prestakuntza, teknologia berrien aplikazioa eta etengabeko berrikuntza besteren artean, abiatu beharreko baliabideak dira. Gainera, eskualdeen arteko elkarlanak, bai eta merkataritza edota ostalarien elkarrekin bultzatzen dituzten egitasmo sozial eta kulturalak bultzatzea, merkataritza logika sozialaren bidez jarri beharko gaituzte.

## C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

**Tamaina txiki eta ertaineko hurbiltasuneko merkataritza eredu bat bultzatu, jasangarria eta bidezkoa.**

- Prestakuntza prozesuak modu parte-hartzailean diseinatu eta martxan jarri sektoreko langileak profesionalizatzeko.
- Laguntza ildoak martxan jarri salto-ki txikiak mantentzeko eta jasangarri egiteko, gune degradatuen edota herri-gune historikoen biziberritzea eta merkataritza garapena bereziki azpimarratuta.

- Laguntza ekonomikoak sustatu merkataritza txikiak teknologia berrietan inberti dezan eta I+G+Bko proiektuetan garatzeko.
- Tokiko merkataritzaren online salmentarako plataforma iraunkor bat sortzeari begira, plataforma eratu baino lehen: lehenik eta behin, kate logistikoaren definizioa; bigarrenik, merkatariek honen inguruko gaitasun tekniko eta administratiboak eskuratzeko formakuntza Bizkaiko Hezkuntza erakunde desberdinekin elkarlanean, eta azkenik, behar duten inbertsio teknologikorako laguntzak (bai ekonomikoak zein aholkularitza-koak). Honen ostean, atxikimendurako konpromisorik baldin badago, plataforma martxan jarriko da.
- Dirulaguntzak eta bestelako neurriak egoera larrian aurkitzen diren tokiko merkatarientzat.
- Merkataritza digitalaren fiskalitatea garatu beharra dago.
- Tamaina txiki eta ertaineko merkatarien elkarteak sortzeko aukera bultzatu, eta merkatarien elkarten izaera sozial eta kulturaleko ekimenak babestu eta bultzatu.
- Eragile guztien arteko hitzarmen eta akordioak sustatu, lan eta gizarte baldintza duinak ahalbidetuko dituztenak sektoreko langileentzat.
- Eskualdeen arteko sinergiak bilatu zerbitzu jakin batzuetarako.

## 03 Ekonomia sustapena

- Sektore berriak bultzatu, bidezko merkataritzako sareak zabaldu, dagozkion produktuen merkaturatzea bultzatuta.
- Tokiko merkataritza sustatzeko kanpainak eta kontsumo bonoak bultzatu.

### **Tokiko politikak hurbiltasuneko merkataritzaren alde.**

- Klausula sozialen bidez bultzatu Administrazio Publikoek egiten dituzten erosketak, lurraldeko saltokietan egin ditzaten.
- Tokiko diruaren erabilera bultzatzen jarraitzea hurbiltasuneko saltokietako erosketetan erabiltzeko.
- Tokiko lurralde antolamenduko planen bidez saltoki txikien ezarpena erraztea azalera handien kaltetan (azalera handi horiei baimenak emateko eragin sozial eta ingurumen arlokoak kontuan hartuko dituzten merkatu azterlanak eskatuta).

## 04

# Fiskalitatea

## A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Beste lau urte igaro dira zerga arloan ezer aurreratu gabe. EH Bilduk zerga arloan lortu nahi dituen helburuak hauek dira: zerga justizia, aberastasunaren benetako birbanaketa, ekonomia eta inbertsio arloko muskulua indartzea, eta kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzea. Amaitu berri den legegintzaldian, aipatu helburuak betetzeko ez da inolako pausorik eman.

Lau urte hauetan, ekonomia etengabeko ziurgabetasunean bizi izan da hainbat egoeraren ondorioz: lehenik eta behin, COVID-19a dela eta, bai mundu mailan bai Euskal Herri mailan jasandako osasun, gizarte eta ekonomia baldintzak. Ondoren, itzelezko inflazioak eta Ukrainako gerraren hasierak areagotutako prezioen igoerak.

Denbora tarte honetan, EH Bilduk krisiaren aurkako neurriak ezartzeko beharra defendatu du, eta horrela erakutsi du krisiaren aurkako neurriak proposatuz eta beste esparru instituzional batzuetatik (bereziki Espainiako Gobernutik, Kongresuaren bidez) etorri direnak babestuz. Hori guztia helburu bakar batekin: sektore sozial eta ekonomiko ahulenak eta okerren pasatzen ari direnak babesteko premia larria.

Baina, aldi berean, EH Bilduk hasieratik adierazi du ez dela nahikoa neurri aringarri horiekin. Behin baino gehiagotan salatu izan dugu Foru Erakundeek Madril onarturiko zerga arloko proposamen jakin batzuk EAEn ezartzeko orduan Espainiako Gobernuaren ildo beretik jarraitu dutela, eta horrela, frogatuta geratu da Euskal Ogasunek Ekonomia Itunaren arabera zerga arloan duten autonomia fiskala gauzatzeko borondaterik ez dutela.

2022. urteko diru bilketak errekor historikoa izan du, baina hori ez da gizartean islatu. Egia esan, denbora horretan gizarte desberdinkeriak areagotu egin dira. Familiei, sektore ahulenei, enpresa txikiei eta autonomoei eragiten dien prezioen igoera izugarria izan da; beste batzuek, berriz, irabaziak biderkatu dituzte, batez ere bankuek (Banco Santander, 5.000 milioitan) eta energia enpresa handiek (Iberdrolak, 2.075 milioitan handitu ditu irabaziak; Repsolek 2.539 milioitan). Era berean, bereziki kezkatzen gaitu etxebizitza eskuratzeko zailtasunak (alokairua edota erosketa) eta alokairuen prezioen igoerak ez ezik hipoteken kuoten igoerak ere. Lau urte horietan ere ez da neurri eraginkorrik ezarri hazkunde horiek arintzeko eta geldiarazteko, eta errealitatea da familia askok ikusten dutela egoera horrek beren pobretze maila handitu egiten duela. Bestalde, oinarrizko zerbitzuetako sistema publikoa desegiten ari da, hala nola osasungintza edo Aldundien eta Udalen menpeko gizarte zerbitzuak.

Ondoko hiru datuek berresten dute lehen aipatutakoa:

- Diru bilketa, batez ere, PFEZan eta BEZean oinarritzen da; hau da, langileen nominetan eta kontsumoan. Eta gainera, kontuan hartu behar da BEZa guztiz atzerakoia dela, berdin ordaintzen baita edozein ahalmen ekonomiko izanda ere.
- Madrilgo Erkidegoaren atzetik, Bizkaia eta Araba dira enpresa handiek edo fortuna handiek gutxien ordaintzen dituzten bi lurraldeak.

- Gehien dutenei begirako zerga presioa aztertuta, Euskadiko Autonomia Erkidegoa Espainiako Estatua baino 2 puntu gutxiagokoa da, Europa baino ia 5 puntu gutxiago, eta Europako herrialde aurreratuenekin (Frantziako Estatua, Danimarka edo Alemania, besteak beste) alderatuta, oso urrun gaude.

Horrek guztiak esan nahi du ez gaudela koiunturazko krisi baten aurrean, konbentzitzen saiatzen diren bezala. Gizartea konbultsio ekonomiko handiek markatutako garai batean murgilduta dago, eta, beraz, une honi ezin zaio ohiko errezeta ekonomikoen bidez aurre egin, mirari bategen aurreko “normaltasunera” itzultzea esperoan.

EH Bilduk, hasieratik esan duen bezala, beste behin errepikatzen du: Etorkizuna prestatu behar da eta, ziurgabetasun handiko agertoki globalaren aurrean, gure erresilientzia areagotuko duten eraldaketa prozesuei herri bezala ekin behar diegu.

Horretarako, EH Bilduk ezinbestekotzat jotzen du zerga politikari buruzko eztabaida abiaraztea, helburu nagusitzat herri honetan sortutako aberastasuna zuzen banatzea izango duena, horrela pertsona guztien eskubideak zerbitzu publiko unibertsal eta kalitatezkoen bidez babesteko.

Ez da soilik neurri aringarriak hartzeko unea; beharrezkoak eta premiazkoak dira egiturazko aldaketak. Bada garaia zerga erreforma justu, progresibo eta integral bati ekiteko, batez ere honako alderdi hauei eragingo diona:

- Aberastasunaren birbanaketa sakona, 2008az geroztik gertatzen ari den laneko errentak kapitaleko errentetara aldatzea eteteko.
- Aberastasuna metatzeko prozesuaren lehengoratzea, euskal gizarte osoaren ongizatearen oinarriak bermatzeko.
- Diru bilketa handiagoa, bidezko eran eta era progresiboan jasota, herritarrei eskubide eta zerbitzu publikoak bermatzeko, bai eta euskal erakundeek hamarkada honetako erronka estrategiko handiei (klima aldaketaren aurkako borroka eta trantsizio energetikoaren bultzada, eredu sozioekonomikoaren eraldaketa, digitalizazioa, demografia erronka, ...) aurre egiteko beharrezkoak diren inbertsioak ere egin ditzaten.

**B. BEREHALAKO NEURRIAK 2024RAKO:**

— Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga:

Goiko tarteen artean, beste bi tarte ezartzea, tipoa handituz, bai likidazio oinarri orokorrean bai aurrezkiaren likidazio oinarrian.

Likidazio Oinarri Orokorraren tipoa, 2024rako:

Oinarri likidagarria	Kuota osoa eurotan	Gainerako oinarri likidagarria	Tipo portzentajetan
0	0	17.280,00	23
17.280,00	3.974,40	17.280,00	28
34.560,00	8.812,80	17.280,00	35
51.840,00	14.860,80	22.190,00	40
74.030,00	23.736,80	28.500,00	45
102.530,00	36.561,80	34.140,00	46
136.670,00	52.266,20	62.570,00	47
199.240,00	81.674,10	150.000	49
342.240,00	155.174,10	200.000	50,5
542.240,00	256.174,10	Gainerakoa	52

Aurrezkiaren Likidazio Oinarriaren tipoa<sup>1</sup>:

Aurrezkiaren oinarria eurotan	Tipoa portzentajetan
2.500,00 eurora arte	20
2.500,01tik 10.000,00raino	21
10.000,01etik 15.000,00raino	22
15.000,01etik 30.000,00raino	23
30.000,01etik 150.000,00raino	25
150.000,01etik 300.000,00raino	27
300.000,00tik aurrera	28

<sup>1</sup> Nafarroan eta Estatuan 2023an aplikatu duen moduan.

### ■ Sozietateen gaineko Zerga

Dibidenduen %95 salbuetsita eta gainerako %5aren (kudeaketa gastu ez kengarriak) gainean, dagokien tipoa aplikatuko da<sup>2</sup>.

Enpresek ordaintzen duten gutxieneko tipo efektiboa % 15 izatea, emaitza kontable gehi dibidenduetatik zenbatuta.

### ■ Ondarearen gaineko Zerga

Enpresa partaidetzen salbuespena %95, egungo %100-en ordeaz.

Zerga ezkutua ezabatu.

### ■ Oinordetzak eta Dohaintzen gaineko Zerga:

Enpresa partaidetzen salbuespena % 90, egungo %95-en ordeaz.

Murrizpena 250.000 eurokoa izatea eta progresibitatea sartu %1,5etik aurrera

### ■ Fortuna Handien gaineko Elkartasun Zerga:

Ekonomia Ituna aldatzen duen apirilaren 3ko 9/2023 Legeak arautzeko eskumena aitortzen digu. Ondarearen gaineko Zergaren erreforma sakona egin arte, indarrean sartuko da.

### ■ Hondakinak Zabortegietan uztearen, errausketaren eta hondakinak batera erraustearen gaineko Zerga

Apirilaren 3ko 9/2023 Legearen bitartez itundu da. Estatuaren eskumena izan arren, %20an igotzeko aukera daukagu. Klima aldatzen duen eraginagatik, Batzar Nagusiek 2023ko abendua baino lehen arautzeko eta bertan % 20ko igoera aplikatzeko eskatuko dugu.

## C. ZERGA ERREFORMARAKO PROPOSAMENAK:

Zerga sistemari buruzko eztabaida publikoa bultzatu behar da. Helburuak, baliabideak eta proposamenak eztabaidatu behar dira, eragile ezberdinen proposamenak kontuan hartuz.

Hona hemen, EH Bilduk, hainbat zergaren inguruan egiten dituen proposamenak:

### C.1. Pertsona Fisikoaren gaineko Zergan:

■ Lan errentak eta kapital errentak batu eta tipo bakarra ezarri.

■ 74.030 €-tik gorako diru sarrerak dituztenei tipo handiagoak ezarriko zaizkie.

■ PFEZren progresibitatea mantentze aldera, egun dauden kenkariak berraztertuko dira, errenta altuen kasuan, kenkariak murriztuz, eta errenta baxuenen kasuan, handituz, edo itzulgarri bihurtuz.

■ Kenkarien artean, berebiziko garrantzia du etxebizitzako alokairuari loturikoak. EH Bilduk finkatua du aspalditik alokairuen gehiegizko prezioei muga jartzea ezinbestekoa dela, inork ez lukeelako bere diru sarreren %30a baino gehiago etxebizitza gastuei aurre egiteko erabili beharko, ezta diru sarreren %15a baino gehiago egoera zaurgarrietan aurkitzen direnen kasuan ere. Horri begira, honako proposamenak egiten ditugu:

<sup>2</sup> Nafarroan eta Estatuan dagoen moduan.

- ✓ Etxebizitza alokairua ordaintzen duten herritarren kenkariak ego-kitu eta haztatu behar dira errenta mailaren arabera. 17.280 € arte, kenkaria % 35koa izango da eta joango da gutxitzen 199.240 € arte, % 5 izango dena. Hortik gora ez da egongo kenkaririk.
- ✓ Alokairutik errenta jasotzen duten pertsonen zergaren tipo altuagoak eta progresiboagoak ordaintzea, errenta mailaren arabera. 17.280 € arte, tipoa % 23koa izango da eta joango da handitzen % 49 izan arte, 199.240 € baino gehiago jasotzen dutenentzat.

### C.2. Sozietateen gaineko Zergan:

- Enpresek dituzten etekinak zergape-tu behar dira, kontabilitate emaitzen gehi dibidenduen arabera. Eta lorturiko etekinen arabera tipo ezberdinak ezarri behar dira. Esate baterako, kontabilitate emaitzen arabera, 200.000 € arteko etekinak dituzten enpresen tipo nominala % 24 izango da; 200.000 € eta 1.000.000 € arteko etekinak dituzten kasuan, tipo nominala % 26 izango da; eta 1.000.000 € baino gehiagoko etekinak dituzten enpresen tipo nominala % 28 izango da.
- Tipo nominalak baino askoz garrantzitsuagoak dira enpresek ordaintzen dituzten benetako tipoak. Helburua da enpresek ordaindutako benetako tipoa gutxienez % 15 izatea, beti kontabilitate emaitzen gehi dibidenduen arabera. Etekinen arabera, gutxieneko tipoak igoko dira, esate baterako, % 17 eta % 19, aurrekoan zehazturiko etekinen tarteen arabera.

- Gutxieneko tipo horiek ordaintzen direla bermatzeko, egun dauden kenkariak murriztu beharko dira eta muga orokor bat ezarri. Kenkari guztien batura ezin da kuota likidagarriaren % 25 baino handiagoa izan. Horretaz gain, oinarri negatiboak konpentsatzeko epea egungo 30 urtetik 5 urtera murriztuko da.

### C.3. Ondarearen gaineko Zergan:

**Ondarearen gaineko Zergaren** ordez, **Aberastasun eta Fortuna Handien gaineko Zerga** ezarri, zergadunen aberastasun osoa zergapetzeko. 2011 – 2015 lege-gintzaldian Gipuzkoako Foru Aldundiak indarrean jarritakoa hartuko da oinarri.

### C.4. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

- Salbuetsitako zenbatekoa, 250.000 €.
- Tasak era progresiboan ezarriko dira, zenbatekoaren eta ahaidetasun-mailaren arabera. Eredu gisa, Nafarroan dauden tasak har ditzakegu:



## HILDAKOAREKIKO AHAIDETASUNA

## Bikotekidea

Likidazio Oinarria GEHIENEZ (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Gaineratikoa GEHIENEZ (eurotan)	Tipoa
250.000	0	Gaineratikoa	0,80%

**Odolkidetasunezko lerro zuzeneko aurreko edo ondorengo ahaideak,  
adoptatzaileak edo adoptatuak**

250.000	0	250.000	2%
500.000	5.000	500.000	4%
1.000.000	25.000	800.000	8%
1.800.000	89.000	1.200.000	12%
3.000.000	233.000	Gaineratikoa	16%

## 04 Fiskalitatea

LIKIDAZIO OINARRIA (eurotan) (**)	Aurrekoa edo ondorengo, ahaide-tasunagatik	2. mailako albokoak	3. mailako albokoak	4. mailako albokoak	Albokoak, gradu urrunagoak eta arrotzak
7.813,16 € arte	0,80%	0,80%	0,80%		
7.813,16tik gorakoa					
6.010,12 € arte	6%	8%	9%	11% (*)	11% (*)
6.010,13 €-tik 12.020,24 € arte	7%	9%	10%	12%	12%
12.020,25 €-tik 30.050,61 € arte	8%	10%	11%	13%	14%
30.050,62 €-tik 60.101,21 € arte	10%	11%	13%	15%	16%
60.101,22 €-tik 90.151,82 € arte	11%	13%	15%	17%	18%
90.151,83 €-tik 120.202,42 € arte	13%	15%	17%	20%	21%
120.202,43 €-tik 150.253,03 € arte	14%	17%	20%	23%	24%
150.253,04 €-tik 300.506,05 € arte	16%	20%	23%	26%	29%
300.506,06 €-tik 601.012,10 € arte	17%	23%	26%	31%	36%
601.012,11 €-tik 1.803.036,31 € arte	18%	26%	30%	35%	40%
1.803.036,32 €-tik 3.005.060,52 € arte	19%	30%	34%	39%	45%
3.005.060,52 €-tik aurrera	20%	35%	39%	43%	48%

### C.5. Fiskalitate berdea:

Ingurumenaren proposamen integralaren barruan zergek atal bat izan behar dute. Klima aldaketari aurre egin behar zaio, tenperatura igoera eragotzi behar da, neurri zorrotzak behar dira, eta zergek bide horretan akuilu lana egin behar dute.

Bitartekoen ustiaketa sostengarria (ura, lurra, etab.) eta energia eta garraio garbiak behar dira. Hots, trantsizio energetikoan lagungarri direnak mesedetuko dira zergetan eta zamatan kutsakorrek diren energiak, garraioak, eta orohar jarduera ekonomiko edota pertsonal guztiak.

Plan integral horretan nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza berriak sustatu behar dira, ekologikoak; eta zuhaitz autoktonoen landaketa iraunkorra, kontuan hartuta horiek CO<sub>2</sub> isurketan duten zeregina.

Halaber, industria arloan ere energiaren eta orohar baliabide natural guztien erabilera efizientea eta garbia bultzatu behar da, hau da, aldaketa klimatikoa areagotzen duten jarduerak eragotzi egin behar dira. Era berean, garraioaren antolakunde berria bultzatu behar da era horretan (garraio publikoa, elektrikoa, kotxe partikularren erabilera mugatu, KMO elikagaie-tan, etab.).

Trantsizio ekologikoa bultzatzeko, eta deskarbonizazio bidean, **zerga berriak** behar ditugu eta hori topatu egin dugu gure zerga subiranotasun faltarekin, zerga asko Estatuaren eskumenak direlako. Beraz, lehenengo aldarrikapena da, **zerga-subiranotasun osoa aldarrikatzea**.

Hala ere, Ekonomia Itunaren arabera, Estatuaren eskumenak diren hainbat zergen tipoak % 15 edo % 20 handitzeko aukera dugu (hondakinena hidrokarburoen edota garraiobideena), baina lurralde historikoek ez dute aukera hori gauzatu. Deskarbonizazioa bultzatzeko, ezinbestekoa da tipo horiek handitzea.

Eta egon badaude **Estatuko Elkarte Autonomoen konpetentziak** ingurumen zergetan (ura, atmosferara isuritako gasak, itsasertzetako isuriak, hondakin biltegitratzea, argindarraren garraioa eta banaketa, merkataritza gune handien gaineko zerga, etab.). Hau bigarren mailako kutsadura da. EAEn ez da eskuduntza hori garatu. Nafarroan bai (uraren kanona, merkataritza gune handiena...). Udal Zergetan ere ingurumen ikuspegia txertatu beharra dugu, eta gure eskumenekoa da.

Azkenik, zerga neurri hauek prezioen garestitze orokorra ekarriko dutela kontuan hartuta, berriro azpimarratu behar dugu, ekonomiaren sektore ezberdinetan zein garraio arloan, **plan integralak** diseinatu behar direla, **trantsiziorako ibilbideak** marraztuz.

Eta ezin dugu ahaztu zerga proposamen hauek duten izaera erregresiboa; izan ere, kalefakzioko gasolioaren edo kotxeko gasolinaren prezioen igoerak eragin handiagoa (errentaren portzentaje handiagoa) dute familia unitate pobreen artean, aberatsen artean baino. Horrek eskatzen du erregresibotasun hori konpentsatzeko neurriak hartzea.

Horregatik, ingurumeneko zergen bidezko diru bilketak bi erabilera izango ditu:

- ✓ Lehenik eta behin, herritar zaurgarriei dirulaguntzak bideratzea izango da, jakinda erregai fosilen garestitzeak beraiek kaltetuko dituela bereziki. Baita ere, beharrezkoa izan daiteke funts bereziak sortzea ekonomiako sektore ezberdinetan bultzatu behar den trantsizioarako.
- ✓ Bigarrenik, unibertsitate publikoekin gobernuek hitzarmenak sinatu beharko dituzte, diruz hornitu, ikerketan urratsak emateko, alternatibetan ikertzeko eta ura eta lurren birgaitzeak bermatzeko.

### C.6. Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gaineko Zerga:

tipoa handituko dira, bai Ondasun Eskualdaketaren kasuan, ohiko etxebizitza barne, Sozietate Eragiketetan edota Egintza Juridiko Dokumentatuen kasuan.

### C.7. Zenbait Garraiobideen gaineko Zerga berezia:

Ekonomia Itunaren arabera, Batzar Nagusiek aukera dute %15eko igoera egiteko. **Deskarbonizaziorako bidean, honako aldaketak egitea proposatzen dugu:**

- **3. epigrafea:** CO<sub>2</sub> isuri ofizialak 160 eta 200 gramo/km artekoak dituzten ibilgailuentzat, %9,75<sup>3</sup>.

<sup>3</sup> Kantabrian bezala.

<sup>4</sup> Katalunia, Asturias, Illes Balears, Valentzia %16koa da.

<sup>5</sup> Andaluzian eta Kantabrian bezala.

<sup>6</sup> Katalunia, Asturias, Valentzia, %16; Murtzia, %15,9; Andaluzia, %14,75.

- **4. epigrafea:** CO<sub>2</sub> isuri ofizialak 200gramu/Km gorakoak dituzten ibilgailuentzat eta beste batzuentzat, %15<sup>4</sup>.

- **5. epigrafea:** Aurreko epigrafeetan sartzen ez diren ibilgailuentzat, itsasontzientzat eta hegazkinentzat: %12<sup>5</sup>.

- **9. epigrafea:** 140gramo/Km gorako CO<sub>2</sub> isuriak dituzten motorrak, % 16<sup>6</sup>.

### C.8. Jokoei buruzko Zergak:

- **Joko jardueraren gaineko Zerga:** Ekonomia Itunaren arabera, zergaren bidez kargatutako jarduera gauzatzen duten operadoreek, antolatzaileek edo hura garatzen duten bestelakoek egoitza fiskala Euskadin dutenean, %20ko igoera aplikatzeko aukera dugu.

- **Gure eskumenak diren** kasinoko joko, bingo, apustu, jokorako makina, zozketa, tonbola, eta abarren tipoa errebisatu behar dira.

### C.9. Erabateko subiranotasun fiskala

**Erabateko subiranotasun fiskala eskatu eremu guztietan, eta bereziki eskumen arauemailea BEZari eta zerga bereziei** dagokienez, zeharkako zergek zuzeneko zergekiko duten pisua murriztea ahalbidetzeko eta beharrezkoak diren politika eraldatzaileak bultzatu ahal izateko.

### C.10. Tokiko zergak:

**Tokiko zergei** dagokienez, Aldundiak arautzen duen zerga markoan ondokoa eskatzen dugu:

- ✓ Ondasun Higiezin Zergaren kasuan, hobariak ezartzeko aukera ematea Udalei, ondasun horren jabearen egoera sozioekonomikoa kontuan hartu ahal izateko.
- ✓ Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren kasuan, salbuetsita dagoen urteko eragiketa bolumena, 1.000.000 €-koa jaistea. (Bizkaia)
- ✓ Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Foru Araua aldatu behar da tipoa, ibilgailuen kutsatze mailaren arabera ezarriz.
- ✓ Tokiko zerga ezberdinetan, ingurumen ikuspegia txertatu behar da.
- ✓ Halaber, euren lurraldea zeharkatzen duten energia azpiegituren jabe diren enpresak (goi tentsioko lineak, gasbideak...) tokiko jabaria erabiltzeagatik tasa baten bidez zergapetu nahi dituzten toki erakundeei laguntza juridiko, ekonomiko eta teknikoa eskaintzeko konpromisoa hartuko du Aldundiak.
- ✓ Tokiko zerga guztietan, Udalek aukera izan behar dute hobariak ezartzeko, zergadunen egoera ekonomikoa kontuan hartuta.

### **C.11. Eliza Katolikoak eta bestelako erligio erakundeen zerga trataera:**

Oraindik ere 1976ko Konkordatoaren ondorioz Eliza Katolikoak dituen pribilegioak murrizteko eta, ahal balitz, guztiz ezabatzeko neurriak hartuko dituzte Foru Aldundiek dagozkien zergei buruzko Foru

Arauen eta Irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubideari buruzko Foru Arauaren erreformaren bidez.

## **D. IRUZUR FISKALAREN AURKA BORROKATZEKO NEURRIAK AREAGOTU**

- Giza baliabide eta baliabide teknikoak areagotu, informazio gurutzaketa masiboak ugaldtu, eta arauak emateko eta ikuskatzeko gaitasun handiago baterantz aurrera egin nazioarteko eragiketa eta enpresa handiei dagokienez.
- EAEko ekonomia ezkutuan dauden 6.214 milioi € (2020ko datuak, EUSTAT) merkatura sartzeko neurriak hartu.
- Iruzur eta Saiheste Fiskalaren aurkako Euskal Behatokia sor dadila sustatu.
- Iruzur egindako zergak berreskuratzeke neurriak aktibatzea.
- Zordunen zerrendan sartuko dira 250 mila € edo gehiagoko zorra dutenak, nahiz eta zatikatuta izan.

## **E. ZERGA POLITIKAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO TRESNAK GARATZEA**

- Egungo zerga sistemaren eragina aztertzea generoaren arabera eta dauden ezberdintasunen zergatian sakontzea, neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.
- Generoen arteko diskriminaziorik sortuko ez duen zerga politikaren oinarriak zehaztea.

# 05

# Trantsizio ekosoziala

Klima Aldaketa hemen dago. Ez da prognosia teorikoa edo etorkizunerako iragarpena. Aldaketa sakonak behar dira erronka handiei aurre egiteko. Klima aldaketak, energia trantsizioak, eta ekonomia hipokarbonikoak ekidin ezin den errealitatea jartzen digu parez pare. Eta begirada osoak eta holistikoak ahalbideratu behar du, inor atzean utzi barik, emakume zein nagusien desafioei helduz, besteak beste, Bizkaia berria ehuntzea denon artean. Natura ondarea eta biodibertsitatea zaintzen dituen Bizkaia. Ekonomia eraldatzen duen Bizkaia, tokikoa, garbia, berritzailea, inklusiboa.

Gizartea aintzat hartuta, ahalduntzea, solidaritatea eta komunitatea indartzen dituen. Aldiz, erronken aurka goaz, gizarte baztertzaila, garraio kutsakorra, landa eremuaren hustutzea edo gizarte zerbitzuen ahuldade eta hauskortasuna nagusitzen direnean. Atzeraka goaz ez bagoaz aurrera erronkek eskatzen duten ikus-

miran eta mailan. Lurraldearen negutegi efektua eragiten duten gasen emisioak sustatzen badira, kotxeari errepide eta bide gehiago eskainiz, bestetik zor publikoa areagotuz. Karbono gutxitzearen edo bahitzearen kontra doa zuhaitz landaketa monolaborantzan eta lurzoru galeran oinarritzen denean. Ekonomia jarduera oligozentratua eta hipermugikorra sustatzen denean, hipergarraioa dakarrelarik eta langileriaren mugikortasun kautiboa kotxe pribatuan. Ekonomia ez dagoenean oinarritua tokiko energia eta lehengai berriztagarrietan.

Tokiko ekonomia txiki eta ertaina alboratuta geratzen denean, erraldoien aurrean, izan baserritar, merkatari, jostun, musikari edo artisau. Bizkaiak klima aldaketari aurre egiteko eta lurralde eta gizarte erresilienteagoa izateko estrategia eta ekintza plana behar du eta horrek jaso behar du lurraldearen osasuna nola bermatu. Lurraldearen osasuna, eta bere herri, uri eta

auzoena, herritarren ongizatearen parekoa da. Bizkaiak aurrera egiteko, aro malgar eta berezi honetan, bizirik behar ditu bere paisaiak, tokiko jarduerak, gizarte sareak, kultura, sormena eta auzolan izaera kolektiboa.

Bizkaia benetan subiranoagoa, osasuntsuagoa eta erresilienteagoa nahi bada, oso dependiente eta zaugarria baita, natura baliabideak zaindu behar ditu: uraren kantitate eta kalitatea, lurzorua zaintza, elikagai osasungarriak, kalitatezko ingurumena eta paisaia abegikorak. Eta, arriskuak gutxitu, noski: uholde, sute eta baso-istripuak. Horretarako lurralde kalitatea eta gizarte ahaldundua behar dira. Gaur egun, Bizkaiko elikadura, energia, baso, ur politika eta hondakinenaren zentroan multinazionalak edo enpresa handiak daude, Lurralde zorrak hemen uzten dizkigutenak, eta etekinak, kanpoan. Horri buelta eman behar zaio eta herritarrak jarri behar dira zentroan, erdigunean. Eta KMoko politikak sustatu bai elikadura, energia zein uraren kudeaketan. Horretara doa EH BILDU. Hein berean, lurralde antolamendua eskualdeen bidez artikulatzea proposatzen dugu. Eskualdea da, elikadura, ura, energia, mugikortasuna, hondakinak zein sustapen ekonomikoari erantzuna eman diezaiokeen abiapuntu-ko lurralde esparrua.

## 5.1. Elikadura burujabetza:

### A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Azken 40 urte hauetan lehenengo sektorean, Europako eta bertako politikek bultzatuta, nekazaritza, basogintza zein arrantza mundua pisua galduz joan dira; hau, baserritar eta arrantzaleen galeran, eta nekazaritza lurren zein haiek ekointzitako produkzioen beharakadan islatu da. Lehen sektorea testuinguru askotan eztabaidetatik kanpo geratu da ekonomian duen pisu "eskasagatik". Elikadura beharra eztabaidetatik at gelditu da, eta ondorioz, plangintza gehienetan nekazaritza eta arrantza baztertuak izan dira, eta nekazaritzarako behar diren lurak, gehienetan, beste aktibitate batzuetara zuzendu dira. Produktuen eraldaketarako politika okerrak bultzatu dira; sektore produktoreak lehengai merkeak ekoiztera kondenatu dira, elikadura katearen kontzentrazioa, espezializazioa eta industrializazioaren aitzakian, eta gertaera guzti hauen emaitza, baserritarren galera izugarria izan da. Martxan jarri diren politiken obsesioa, industria eraldatzaile handiak eta azpi-sektoreka ia bakarrak sortzea izan da; lehengai merkeak topatu nahian sektorea zapuztu eta munduko beste edozein tokitik ekarri dira jakiak. Produktuen transformazioa bai garatu da berton, egin ere eredu industrial bat jarraituz egin da (eta ez baserritarren eskutik), baina lehengaien ekoizpena, beste plano batean geratu da. Transformaziorako zeuden egitura txikiak desagerrara-

zi egin dira, errentagarritasun gutxikoak zirelakoan, eta osasun legeak erabili dira egitura handiak garatzeko eta ez base-ritarren eta kontsumitzaileen beharrei erantzuteko (Europar zehar dauden adibideak ez dira hona ekarri).

Honekin batera, nekazaritza beharrezko laguntza tekniko gabe geratu da, garai batean sortutako egiturak, Nekazaritza Politika Erkidea kudeatzen eta lan burokratikoa egiten geratu baitira, aholkularitza, formazioa eta akonpainamentua egoki landu ordez. Ekoizpen eredu errentagarria garatzeko behar luketen landa garapenerako programak eta diru laguntzak, sarri, landa eremuko beste egitasmo batzuetarako erabili dira. Argi dago orain artekoak ez duela sektore indartsu bat eraikitzeke balio izan, beraz bide berriak jorratu beharra daukagu. Eta beste herrialde askotan gertatzen ari den moduan, baserritarrak desagerrarazi eta nekazaritza lurra agortzen duen garapen ekonomiko baten aurrean, elikadura burujabetzarantz bidea egiteko ordua da. Baserritarren eta kontsumitzaileen beharretan oinarritutako tokiko elikadura sistemak eraikitzean da horretarako gakoa.

### B. HELBURU OROKORRA:

Elikadura burujabetza, enplegua, ondasun naturalak, tokiko garapena, tokiko elikadura sistemak, agroekologia, eraldaketa, merkaturatzea, politika publikoak.

- ✓ Tokiko elikadura sistema iraunkor, justu eta osasuntsuak eraiki behar dira Elikadura Burujabetzaren norabidean urratsak eman eta ekoizpen

eta kontsumoaren planifikazioaren baitan elikagaiak fisikoki zein ekonomikoki eskuragarri izateko.

- ✓ Elikadura oinarritzko beharra izanik, Euskal Herriak elikadura osasungarri baten bermea izan behar du, herri gisa etorkizuna izan dezan.
- ✓ Nekazaritza, basogintza, eta arrantza iraunkor eta herrikoia sustatu behar da agroekologiaren eta arrantza selektiboaren bidetik, baserritarren eta arrantzaleen bizi eta lan baldintza duinak bermatu eta herritarrekin gertutasunean eta konfiantzan oinarritutako ereduak eraikitzeke.
- ✓ Lana eta baliabide natural eta ekonomikoak banatu behar dira Euskal Herriko txoko guztietan ahalik eta nekazari eta arrantzale gehien egoteko, nekazarien eta arrantzaleen lan eta bizi baldintza duinak eta jatorrizko funtzio soziala bermatuz.



## C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK:

### — ONDASUN NATURALAK: Kudeaketa kolektibo eta publikoa bultzatu.

#### — LURRA:

- ✓ Nekazaritzarako egokiak diren lurrrak bestelako interesen aurrean nekazaritzarako babestea, inbentario bidez sailkapen eta kalifikazio xehatua eginez eta babeserako eraginkorrak diren mekanismoak martxan jarriaz.
- ✓ Beharrezko baliabide guztiak jarri Lur Funtsa biziberritzeko eta 17/2008 Nekazaritza eta Elikadura Legeak agindutakoa betetzeko; hein berean, Aldundiak dituen nekazal lur eta azpiegitura abandonatuak Lur Funts horretan sartu nekazari gazteei bidea erraztuaz edota daudenei lanabes nahikoa eskainiaz.
- ✓ Udalekin itun boluntarioak landu, erabilera bako lurrrak (publiko zein pribatu) nekazari gazte eta berrien eskura izateko. Aldundiaren eta Udalen lurren funts publikoa nabarmen zabaltzeaz gain, 'lurraren zaintza' (custodia del territorio) tresna erabili, pribatuen lurrrak erabili ahal izateko modu arduratsuan eta akordioan oinarrituta.
- ✓ Lur erosketa publikoko politika martxan jarri bai basogintzarako zein nekazaritzarako.
- ✓ Lur industrial berririk ez sortzea, aurrez erabiliak, eta abandonatuak dauden lurrrak erabili aurretik.

#### — URA:

- ✓ Uraren kontsumo arduratsua duten nekazaritza ereduak bultzatu.
- ✓ Bioaniztasuna.
- ✓ Prospekziotan lagundu, herrian gordetzen diren tokiko hazi, barietate eta arrazak ezagutzeko eta ezagutzera emateko.
- ✓ Hazien, barietateen eta arrazen banku publikoak bultzatu.
- ✓ Udal ortuak dauzkaten herrietan, bertoko barietateekin lan egiteko aukerak bultzatu.

### — TOKIKO ELIKADURA SISTEMAK, burujabetasunaren oinarria.

- ✓ Tokiko elikadura sistema iraunkor, justu eta osasuntsuak eraikitzeke plan integralak diseinatu, ekoizpenaren hasieratik kontsumoa burutzen den momentu arteko fase guztiak kontuan hartuaz.
- ✓ Aldundiak ateratzen dituen laguntza planetan elikadura sistema lokalak sustatzeko proiektuen presentzia eta dotazio ekonomikoa handitu, proiektuok gauzatzeko pizgarri bihurtuaz.

### — EKOIZPENA: Nekazaritza iraunkorra babestu eta bultzatu.

- ✓ Agroekologia sustatu eta eredu intentsiboetatik iraunkorragoetara bidea egiteko estrategia zehatza jarri martxan
- ✓ Nekazaritzako laguntza planari, berrikuspen sakona egin, bi helburu nagusirekin, lehenengo, trans-

misioa bultzatzeko, hau da, gazteria baserriratu ahal izateko, eta bigarrena, eredu produktiboaren aldaketa bultzatzeko.

- ✓ Transgenikoak pertsona eta animalien elikadura katean ez erabiltzearen aldeko konpromisoa hartu, horretarako epe motz eta ertainera begirako egitasmo desberdinak martxan jarriaz.

### ■ **ERALDAKETA: Nekazari, abeltzain eta arrantzaleen ekonomiari balore gehigarria eranstean diona.**

- ✓ Eraldaketarako gaur egun dauden osasun araudiak malgutu, “artisansu erako produkzioak” erregulatuaz, Europako osasun zuzentarauak planteatzen duen moduan, eta inguruko beste herrialdeetan egiten den eran, baserritarren produkzioak ahalbidertzeko.
- ✓ Herri edo eskualde mailan, eraldaketarako proiektuak sustatu, edo daudenak lagundu.
- ✓ Nekazaritzako zein abeltzaintzako, tokiko eta sasoiko elikagaiak prozesatzeko eta banatzeko sistema publikoa sortu (eredu dibertsifikatua eta planifikatua ardatz hartuta).
- ✓ Haragi sektorean, oinarrizkoak diren azpiegitura publikoak bultzatu: hiltegiak, zatitze gelak...

### ■ **MERKATURATZEA: Nekazari, abeltzain eta arrantzaleen ekonomia zikloa osatzen duena.**

- ✓ Arrainaren salerosketarako kofradiek behar dituzten azpiegitura egokiak bermatu, kofradien aldeko apustu garbia eginez.
- ✓ Baserritar, arrantzale eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzenak bultzatu. Herrietako asteko azokak indartuz eta horretarako azpiegituraz egokituaz.
- ✓ Kontsumo taldeen banaketa puntuen sarea sortzea. Lokalak, ekipamendua eta langileez hornitua.
- ✓ Kontsumo kolektibo eta publikoa. Esleipenetan irizpidetzat jarri bertoko produktu agroekologikoez hornitzeko nahia. Elikagaien erosketa publikoa burutzen diren lekuak identifikatu, beraien eskumenak eta baldintzak zeintzuk diren aztertu, eta gertutasun, kalitate eta ingurumen irizpideak kontuan hartuta, inguruko baserritar eta arrantzaleen produktuak primatu kontratazio klausuletan, erosketa publiko berdea eginez, eta merkataritxikiekin bestelako produktuak ere egoki puntuatu eskaria osatu aldera.
- ✓ Hitzarmen bat sinatu eskola jantokietan produktu lokala sartu duten edo nahi duten eskola komunitate eta udalekin beharrezko baliabide guztiak jarrita proiektuok egingarriak izan daitezen.
- ✓ Zuzeneko laguntza lerroa ezarri, nekazariei lanbide arteko gutxieneko soldata eman arte konpentsatzeko, benetako lanaldiak haztatuz, astean 40 ordu baino gehiago lan egin beharrik izan ez dezaten.

- ✓ Nekazaritza Elikagaien Behatokiak egiten duen prezioen inguruko azterketak euskal elikadura sistema modu integralean, sakon eta iraunkorrean lantzea ahalbideratu, ekimena sustatzeko bitartekoak jarrita.
- ✓ Udalak edo Aldundiak babestutako edozein ekintza gastronomikotan bertako baserritarren eta arrantzaileen produktuak erabiltzeko konpromisoa hartu, posible denean, era agroekologikoan eta arrantza arduratsu bitartez ekoiztutakoak, lehenetsiaz.

## 5.2. *Basogintza ekologikoa:*

### A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

2020ko mapa forestalak datu hauek ematen dizkigu: Zuhaitzdun azalera: 131.676 hektarea, Zuhaitz landaketak: 100.070 hektarea, koniferoak: 73.419 hektarea, eukaliptoak: 20.506 hektarea, bertoko basoa: 31.606 hektarea eta mendi publikoen azalera: 45.405 hektarea.

Bizkaiko Foru Aldundiak eukaliptoari moratoria ezarria dio eta Basogintzako Foru Arauaren Berrikuspena abian da, baina ez zaigu argi geratu ze neurri hartuko diren basoari lotutako lurralde eta sektore bizia sustatzeko. Eredu guztiek omen dute kabida etorkizuneko Bizkaiko Basogintzan. Hori da esan digutena. Baina, monolaborantzako basogintza txikitzaileari ez zaio mugarik jarriko?.

Basogintza garapenitsuak honako hau dakar: biodibertsitate galera, espezie inbaditzaileen zabaltze azkarra, lurzoru galera, luiziak, ur erregulazio eza, base-rrien itoaldia, sute arriskua, paisaia degradatua.

Guzti hori oso presente izan behar da Basogintzako Foru Arauaren Berrikuspenean, Bizkaia lurralde ez seguru eta ez erresilientea izatea nahi ez bada. Foru Arauaren berrikuspen fase honetan baso helduen sarrera sortzeko plangintza presente izatea ezinbestekoa da, eta horrek besteak beste ekarriko dizkigu mitigazioa, egokitzapena eta bestelako onurak gizarte osoarentzat.

### B. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK:

- ✓ Basoak zabaltzeko plan zabala diseinatu 2030 urtera arte (Eusko Jaurlaritzako 1994-2030 baso estrategiaren epealdian).
- ✓ Aldundiaren jabetzako lursailetan, pinu eta eukalipto landaketak bertoko basora eraldatu.
- ✓ Udalei bere mendi publikoetan baso antolaketa planak eta baso autoktonoetan eta naturatik gertuko produkzio basoetan oinarrituriko kudeaketa egiteko laguntzak eman.
- ✓ Udalei, bere onura publikoko zuhaitz eremuak, edo bestelako terreneak, erosteko laguntzak eman basogintza ekologikoko aukerak ugaltzeko.

- ✓ Basogintzarako dirulaguntzen helburua izatea natura baliabideak zaintzea eta zabaltzea, ekoizpenak jasangarria izan behar duelarik. Dirulaguntzetatik irizpide ez jasangarriak ezabatu. Dirulaguntza perbertsoak, natura kapitalaren, biodibertsitatearen eta, epe erdira, basogintza sektore beraren aurkako ildoak desagertu.
- ✓ Erreka eta ibai basoak berronertzeko programa martxan jarri, uraren ziklo osoaren baitan. Habitat hobekuntza: zikinkeria kentzea, bertoko landareak zabaltzea, eta aloktonoak kendu, batik bat.
- ✓ Basoari lotutako lurralde eta sektore bizia sustatzeko inbertsioak egin (naturatik gertu dauden basoak ezartzeko). Horretarako partikularrentzat dirulaguntza lerro berri bat ireki naturatik gertuko produktiorako basoak %100ean finantzatzeko, eta trantsizioa, ez dadin beraien bizkar izan.
- ✓ Baso autoktonoen igarobidea plan batera eraman, udalekin koordinazioan.
- ✓ Biodibertsitatea handitzeko eta babesteko ekintzak sustatu, eta lurraldea, kostaldea eta basogintza kudeatzeko eredu berriak aplikatu.
- ✓ Basoan, askotariko erabilerak sustatu (egurretarako, abeltzaintzarako, aisialdirako...).
- ✓ Baso lurretan ikasketa bat egin, baso lur ezberdina zertarako era-

biliko denaren arabera sailkatzeko (dela ura ekoizteko, CO2 fijaszeko, edota errekarari lekua emateko).

- ✓ Zerbitzu ekosistemikoengatik ordainketa Bizkaia osora hedatu.

### 5.3. *Trantsizio energetikoa:*

#### **A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:**

Bizkaiak duen menpekotasun energetikoa ia erabatekoa da, %90ekoa baino handiagoa. Euskal Herriak herri burujabea izan nahi badu, energia burujabetzaren norabidean aurrerapausoak egitea ezinbestekoa da. Eredu ekonomikoarekin estuki lotuta dagoen energia eredu atzerakoia dugu, xahuketan eta etengabeko hazkuntzean oinarritzen dena.

Energia eredu honen kudeaketa egiten duten oligopolio eta multinazionalak beraien interes ekonomikoei begirako kudeaketa eredu inposatu dute azken hamarkadetan, botere politikoa izan duten alderdien laguntzarekin beti ere. Energiak gure sistema sozioekonomikoa mugitzen du. Gaur egungo sistema kapitalista baliabideen xahuketan oinarritzen da baliabide guzti horiek agortu arte.

Urtez urte, ekoizpenak eta kontsumoak gora egin behar dute sistema honek, kapitalismoak, ondo funtzionatu dezan. EH Bilduk sistema burujabe eta jasangarri-rako trantsizioa burutu nahi du. Erronka oso handia da eta pausuz pausu baina

sendo egin behar da. Erregai fosilen (merkeen) agorpena heldu denean, Euskal Herrian ere aurreranzko ihesbideari ekin diogu. Egoera hori eman da hemengo arduradunek erregai fosiletan oinarritzen den eredu zentralizatua sustatu dutelako.

Beraz, ustez berriztagarrietan oinarritzen den eredu batera trantsizioa egin behararen irudia ematen bada ere, instituzio nagusien datuek oso argi uzten dute ez dagoela energia ereduan benetako trantsiziorik emateko asmorik, iraganeko inertziak bultzatutako aurreranzko ihesbidea baino ez.

## B. HELBURU OROKORRA:

Energia kontsumoa %50 murriztu eta energia kontsumo gordinaren %75a berriztagarria izatea da 2045erako helburua, 2019ko kontsumoak hartuta. Era berean, energia ondare publiko eta estrategiko bezala kudeatzen hasi behar gara. Horretarako, irizpide ekonomiko pribatuen menpe erregai fosiletan oinarritzen den gaur egungo eredu eraldatzen hasi behar dugu. Erabakiak, kostuak eta onurak gizarteratuz eta energia berriztagarrietan oinarritzen den eredu banandu berri bat ezarri.

Ingurumen ikuspegitik zein bideragarritasun ekonomiko eta sozialetik, energia berriztagarrietan oinarritutako sistema energetikoa eraiki behar dugu, beti ere aipaturiko kontsumoaren murrizketa burutuz.

## C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK:

Askotariko neurriak sustatzea energia eredu alternatibo eta subirano baterantz joateko.

- Energia trantsizioa gidatu eta faktore erabakigarriak sustatu efizientzia, energia berriztagarriak eta energia kudeaketarako kooperatibak eta komunitate energetikoak bultzatzeko.
  - ✓ Komunitate energetiko, herritarren energia komunitate edo energia berriztagarrien komunitateentzat proiektu integralak eta bereziak bultzatzeko laguntzak eman.
  - ✓ Tokiko komunitate energetiko, herritarren energia komunitate edo energia berriztagarrien komunitateentzat Banaketako Mikrosare adimendunak, kontrol integraleko sistemak eta Energia Merkatuaren seinaleei egokitzeko tresnak sortzeko laguntzak eman.
  - ✓ Tokiko komunitate energetiko, herritarren energia komunitate edo energia berriztagarrien komunitateentzat, autokontsumo partekatuan metaketa eta backup sistemak garatzeko laguntzak eman.
- Energia berriztagarriak ezarri eta energia aurreztearen aldeko konpromiso politikoa berretsi eta herritarren artean zorrotasun eta egiatasun irizpideen araberako kontzientzia pizten lagundu.

- Energiaren demokratizazioa. Zaurgarriei energia berriztagarrietarako irismena bermatu, inor atzean ez uzteko.
- Arlo ekonomiko, sozial, politiko eta akademikoko eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan jardun, guztien artean irtenbideak sortu daitezten energia eskariak eta haren prezioak dakarren erronka komunari erantzuteko.
- Bizkaia mailako plana diseinatu gure energia kontsumoak egokitzeko larrialdi klimatikoak eskatzen duen gisa, bai mugikortasun ikuspegitik, bai industriaren egokitzapen beharrei erantzuteko, eta baita gure produzitzeko eta kontsumitzeko ohituren birplanteamentuari dagokionez ere.
- Fracking tekniken erabilera baztertu.
- Energia deszentralizatuaren produktiorantz, energia kooperatiben sorrera eta mantentzea, eta udalerriko eta eskualdeko ekimenak sustatu, besteak beste.
- Osagai energetikoaren balorazioa egin aztarna ekologikoan.
- Energia faktorea presente izan (murrizketa, efizientzia eta iturri berriztagarrietatik eratorritakoa) hirigintzan eta lurralde antolamenduan.
- Energia kontsumoa murrizteko neurriak indartu.
- Energia efizientziako programak ezarri eta kontsumo energetikoa murrizteko I+G+Bko programak diruz lagundu.
- Energia kontsumoa murriztea garaioan: erosketa eta salmenten sustapena zirkuitu laburretan, oinezko edo bizikleta bidezko eguneroko garraioa errazten duen lurralde antolamendua...
- Energia kudeaketa jasangarria egin foru erakundeetan: eraikin publiko guztien, argiteria publikoaren eta abarren plangintza energetiko arrazionala sustatu.
- Kontsumoa murrizteko teknologia berrien erabilera sustatu, esparru publikoan zein pribatuarekin lankidetzan.
- Energiaren aurrezpena, energia efizientziaren lorpena eta energia berriztagarrien erabilera sustatzen duen politika fiskala garatu, praktika horiek sektore guztietan babestuz.
- Industria sektorerako energia garbiko iturri alternatiboen erabilerarako programak sustatu.
- Foru arloko politika integralak diseinatu eta martxan jarri garraio publikoaren eta bizikletaren erabilera errazteko.
- Klima aldaketa eta energia arloan, udalei bideratutako funtsak eta emandako kantitateak handitzea, energetikoki proiektu esanguratsuak sustatu ahal izateko.

## 5.4 Uraren kudeaketa publikoa eta deszentralizatua:

### A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Ura giza eskubidea da, eta Nazio Batuen Erakundeak eskubide hori aintzatetsi zuen 2010ean. Bizitzarako eta pertsonen duintasunerako funtsezko baliabidea da. Multinazional asko baliabide hori kontrolatzen saiatu dira, onura handiak bermatzen dizkielako, eta inor ere ezin da urik gabe bizi. Uraren horniketan ez dago lehiarik: zerbitzua enpresa bakarrak ematen du udalerrri bakoitzean; bezero gatibu bat dago, inork ezin duelako baja eman ur zerbitzutik, eta kudeaketa pribatua herritarren kontrolatik libratzen da. Gogora ekarri behar dugu baita ere, giza eskubidea izan arren, ura, burtsan kotizatzen hasia ere badela. Baina ura eta haren ekosistemak, naturako ondasun eta baliabide guztiak bezala, kolektibitatearen natur-ondarearen parte dira, eta gobernuek bermatu behar dute ez dela negozio pribaturik egingo ondasun komunekin.

Bizkaian, gaur egun, bizkaitarron %92 Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen du, eta 14 udalerrri dira zerbitzua bere kabuz ematen dutenak. Ur horniketari dagokionean, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak Zadorratik eta Burgosko Orduntetik hartzen du banatzen duen uraren %90a. Beraz, Bizkaitik kanpoko ur baliabideekiko dependentzia ia erabatekoa da, eta

hein berean, udalerrietan sakabanatu eta abandonatuta daude tokiko hainbat baliabide.

EAJk Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (BBUP) inguruan egindako kontzentrazioan, uraren monopolioaren bidezko kontrol politikoaz gain, beste perbertsio bat dago: ur zerbitzua negozio gisa ikus-tea. Bilbao-Bizkaia paperean publikoa bada ere, bere kudeaketa eredu enpresa pribatuen irizpide berberen arabera arautzen da. Izan ere, formari dagokionez titulartasuna publikoa bada ere, praktikan, diru publikoaren kudeaketa zuzenetik esku pribatuetara igaro den eredu bat indartu da urteen poderioz, azpiegitura berriak eraikitzeke ez ezik – Aldundiaren eta BBUPren arteko hitzarmena, 2008-2016 urteetarako, 316 milioikoa zen azpiegitura berriak egiteko –, zerbitzua bera azpikontratazioen bidez kudeatzera ere pasatu delarik. Zerbitzuen azpikontratazio eta kanporatze maila oso altua da. Modu honetan enpresa pribatuek, azpikontratatzean ere, poltsikoak betetzen dituzte Bilbao-Bizkaia Partzuergoak emandako milioi askoko kontratuekin. Multinazionalak eta enpresa handiak dira azpikontratatuak, hala nola Iberdrola, Acciona edo Aqualia, Suez.... eta horiek dira uraren fakturretan ordaintzen den diru publikoaren %60a baino gehiago eramaten dutenak. Ezkutuko privatizazio horren perbertsioan azpikontratetako langileak ere kaltetuak suertatzen dira: ereduaren faktura euren lan baldintzen prekarizazioan ordaintzen dutelarik.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa gero eta urrunago dago tokikotik eta egitura oso urrun du udal eta eskualde eskalatik.

Han, erabakiak eta eguneroko kudeaketa ordezkari txikiko eta gutxienero parte-hartzerik gabeko organoetan hartzen dira, eta gardentasunari dagokionez, gero eta opakoagoa da. Bai bertan eta bai kanpoaldean ere kalte ekonomikoa ekarri duten erabakiak ere hartu izan dira, hala nola Argentinan eta Uruguaian egindako inbertsioak, Partzuergoaren helburuetatik guztiz kanpo daudenak eta eragiketa merkantilista ez-logiko eta justifikaezinak direnak, eta are gutxiago oinarrizko ondatsuna den urarekin. BBUPen monopolioak Europan pentsaezina den zerbait ere badakar, Uraren Esparru Zuzentarauak adierazten baitu uraren gaineko kudeaketa eskumenak konfederazio hidrografikoen esku utzi behar direla. Hots, arroak kudeaketa-unitateak direla. Baina Bilbo Handiaren ereduak Europako Zuzentarauari muzin egiten dio eta nahiago du guztia Bizkaia mailako monopolio batean kontrolatu.

Beharrezkoa da kontrol sozialerako eta demokrazia parte-hartzailerako modu berriak sustatzea, gardentasuna eta herritarren parte-hartze eraginkor eta proaktiboa bermatzeko, Aarhuseko Konbentzioak ezarri zuen bezala. Horren harira, azken urteotan demokrazia hidrikoaren kontzeptua gizarte erakunde askok hartu dute, batez ere Europan, kezkatuta baitaude korporazio handiek gero eta nagusitasun handiagoa dutelako ur zerbitzuen kudeaketan.

### B. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK:

- Uraren kudeaketa integratua. Orain arte aurrekontuen multzo nagusia azpiegituretara bideratu da: “hodi amaierako konponbidera”. Uraren kudeaketa mendian hasten da, basoan lasaitzen, lurzoru eta lurrazpian jarraitzen, eta ibaietan bistaratzen. Lehen urratsetako “ur berdeari” arreta gehiago eman behar zaio, mendi babesleak, hargune zainduak, mendi ekosistema osasuntsuak, paisaia orekatuak bilatuz.
- Kudeaketa publikoaren bidez edo kudeaketa komunitarioko beste eredu batzuk erabiliz, zerbitzu publikoak kudeaketa publikoa eginda eman, kalitate eta eraginkortasun estandar zorrotzenak betez, zerbitzu hauek ematen dituzten langile publikoen konpromisoa eta ardurarekin eta herritarren partaidetza izango duen kudeaketa gardena bermatuz.
- Kudeaketa egiten duen entitate publikoaren plantillako langileek beraiek izatea Edateko Uren Tratamendutegien (EUT) mantenua eta ustiaketaren, (HUA) Hondakin Urentzako Araztegien, ur kaptazio guztien, edateko uraren bigarren mailako sareen eta hondakin urak ibilgura isurtzeko arduradunak, proiektuak idatzi eta obraren kontrola egingo dutenak, kudeaketa ekonomikoa eta administratiboaz arduratuko direnak, eta herritarrei arreta eskaini eta kobrantza eta kontagailuen kudeaketaz arduratuko direnak.
- Ekosistemak babestu eta ingurumen jasangarria kudeatzeko neurriak eta irizpideak:



- ✓ Ekosistemaren funtzionaltasuna eta egitura mantentzeko beharrezkoak diren emari ekologikoak errespetatzea.
  - ✓ Baliabide hidrikoen erabilera dibertsifikatzea, haiekiko gehiegizko dependentzia saihestuz eta tokiko baliabide hidrikoei balioa emanaz.
  - ✓ Ur hartuneen inguruan babeserako perimetroak jartzea eta errespetaraztea.
  - ✓ Lurraldearen ahalmen hidrikoa arriskuan jarriko ez duen eta gutxituko ez duen basogintza politika sustatzea.
- Zerbitzua jasoko duen herritarren taimainaren neurriko azpiegiturak sustatu, ustiaketa gastu handiak dituzten azpiegitura handiak eraikitzea saihestuz.
  - Teknologia bigun eta zentralizatu ga-beak sustatu: berrerabiltzea, edateko ez den ura beste erabilera batzuetarako erabiltzea (industria, kale garbiket...), arroko bertako baliabideak lehenestea, euri-ura bezalako ur-horniketa iturriak aprobeztatzea (hirigintzan kontuan izan beharrekoa, euri urak eta saneamentukoak denak batera araztegian amaitu ez dezaten), energia eraginkortasuna areagotzeko irizpideak erabiltzea, etab.
  - Uraren kudeaketa egiten duten entitateak herritarrengana eta gizarte mugimenduetara zabalik egotea esku hartze publikoa bermatuaz modu garden eta zuzenean.

## 5.5 Hondakinaren prebentzioa eta kudeaketa:

### A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Hondakinak eta bere kudeaketa gai konplexua bezain periferikoa da. Bizkaia, Bilbotik hasita, Azkunaren printzipioen eraginaz bustita dago oraindik: zuk zaborra bota, eta ahaztu guztiaz, gu arduratzen garelako. “Gu arduratzen garela” horrek arduragabekeria eta pasotismoa joeran arindu ditu Bizkaian. Aipatzekoa da EAE mailan Hondakinaren legerik egon ez izana, eta Eusko Jaurlaritzaren papera guzti honetan. Honen ondorioz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeek beren kudeaketa eredu propioa eta berezitua dute, herri ikuspegitik inolako zentzurik ez duen sistema aspaldiko partez indarrean mantenduz. Gaur egun, EAEn bizi dugun egoera kafkianoa (Zubietako errauskailua kasu) saihesteko, ingurumen azpiegiturak erkidego mailan pentsatu eta diseinatu beharko lirake. Non dago Jaurlaritzaren lidergoa guzti honetan? Ez da existitzen. EAJk ederto dakielako baliabide baliotsu eta negozio iturri izugarria direla hondakinak.

Hondakinak baliabide izateaz gain, hauen sorrera gutxitzeko erronka serioki hartu behar dugu herri moduan, ekonomia linealetik (non produktuak sortu, kontsumitu eta botatzeko diseinatzen diren) ekonomia zirkularrera (kontsumorako produktuek sortu aurretik, diseinutik berrerabilpena eta birziklapenerako

prestatuak izan daitezen) trantsizioa egiteko premiari erantzunez. Gauzak horrela, gure ehun produktiboarekin (PYME, enpresa handiak, ...) ildo estrategikoa garatuko dugu Bizkaian ekoizten diren produktuek ekonomia zirkularraren logikan txertatuak izan daitezen. Ekonomia zirkularraren logikak dakar, alde batetik, lehengaiak erauzi beharra, gero eraldatu, garraiatu...eta gero, hondakinak lehen goratu, bigarren bizia emateko. Tokikoa, neurrikoa, bio bada hobea. Berrerabili edo birziklagarria, hoba. Hondakinak balioan jarri aurretik, aurreko guztia, hondakinak ez sortzea horren barruan, aurretik jarri behar dela deritzogu. Beste hitz batzuekin esanda, gutxitu egin behar da hondakinen generazioa. Gehitu berrerabiltzea. Findu birziklatzea eta handitu horren tasa. Zaldibarrekoaren ostean argi dago hortik hasi beharra daukagula. Aurre hartze edo prebentzio eta hondakin guztien kudeaketa egokitik.

Aurreko guztiak, zaildu egiten du Bizkaian ganorazko eztabaida egitea, bai sozialki bai politikoki. Baina eztabaida oso beharrezkoa da, Bizkaiko eredia etorkizunik ez duen eredia da: iluna eta modu interesatuan moldatutako datuetan oinarrituta, Zabalgarbi errauskailuan oinarritutakoa, Europak ezarritako hierarkia errespetatzen ez duena, eta abar luzea. Honen aurrean, EH Bilduk bai Gipuzkoan zein Lea Artibaiko mankomunitatean ezarritako sistema jasagarriak eta eredugarriak sustatu beharko genituzke. Lea Artibain organiko osoaren bilketa aspalditik egiten da EH Bilduren bultzadaz, eta mankomunitate hau gehien eta hoberen birziklatzen duen Bizkaiko eskualdea bilakatu da. Bu-

katzeko, badaude eragile zein aliatuak guzterekin batera bidea urratzen dabiltzanak, Bizkaian Zero Zabor Plataforma bezala, non sindikatu, alderdi politiko eta eragile sozialekin lankidetzan, bestelako hondakin politikak bultzatu nahi ditugun.

### B. HELBURU OROKORRA:

Organiko osoaren bilketaren bandera egin, Bizkaia osora eramateko proposatuz.

- ✓ Kudeaketa eskualde mailara eraman.
- ✓ Zabalgarbiren ilun guztiak salatu.
- ✓ Baliabide nahiko udalerrri/mankomunitateentzat.
- ✓ Ekonomia linealetik ekonomia zirkularrerako trantsizioa ahalbidetu.

### C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Fiskalitate berdea, hondakinen sorrera murrizteko eta organikoaren bilketa zein konposta sustatzeko. Zerga araudi bat, pizgarri ekonomiko eraginkorrak ezarriko dituen hondakinak aurretiko estrategiak garatzeko; hala nola, sortzeagatiko tasa (kutsatzen duenak ordaintzen du), ontzien murrizketa indartzeko karga progresiboak, plastiko berrerabilezinei ezarritako zergak, eta isurketa zein errausketa tasak, besteak beste.
- Agrokonposta eredia zabaldu herri txiki ertainetara.

- Bilketa selektiboagoa egiteko baliabide nahiko udalerrientzako.
- Kudeaketa deszentralizatu, eskualde mailara eramanez.
- Organiko osoaren bilketa Bizkaia osora zabaldu
- Zabalgarbirekiko menpekotasuna murriztu eta beren kudeaketa gardentasunera eraman: ✓ Zepen kudeaketan irregulartasunak salatu. ✓ Dioxinen isuriketetan kontrola areagotu. ✓ Hondakinen balorizazioa aztertu. Auditoria. ✓ Energia berriztagarriak sortzeagatik Estatutik kobratzen dituen primak behatu.
- Bizkaiko ehun produktiboarekin ekonomia zirkularrerako lurraldeko estrategia garatu, I+G+b proiektuak bultzatu.
- Hondakinak murrizteko kanpaina (sakon eta luzea, eragina izan dezan gizartean).

# 06

# Kultura, Euskara eta Kirola

## 6.1. *Kultura:*

### A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Kultura eskubide unibertsala da, pertsona orori bermatu beharrekoa. Bai eta herri orori ere.

Horregatik kulturadun emakume eta gizonez osatutako herria nahi dugu, herritar sortzaile, kritiko, burujabe eta librez osatutakoa eta sinetsita gaude kultura helburu hori lortzeko bitarteko paregabea dela.

Euskal herritar orok bere herriaren historia, ohitura eta kultura ezagutu eta sakontzeko eskubidea du; era berean, eskubide osoa du beste herrialdeetako kulturak ezagutu eta bereganatzeko.

EH Bilduk Euskal Herriak bizi duen aniztasun kulturala aldarrikatzen du, ekosistema

bizi gisa. Horren baitan, euskal kultura eta euskarazko kultura ditugu aniztasun guzti horren kohesionatzaile eta ardatz.

Kultura, entretenimendu edo aisialdi soilak bainak askoz gehiago da; kultura gizarte baten garapenerako ezinbesteko elementu bat da.

Kultura partekatu bat behar dugu, sorkuntza prestigiatuko duen politika bat, lanpostuak sortuko dituen eta daudenak mantentzen lagunduko duena, kultur ekoizpen propioaren bitartez sortze eta ekoizpen prozesuetan bizitasuna txertatuko duena.

Kultura globalizatu eta kontsumistaren jaialdi erraldoien eredu egunerokoa bultzatzen duenaren aurrean, herritarren autoeraketa eta enpoderamendua bilatuko duen kultur ereduaren alde egiten dugu; herritarrak sortzaile eta parte-hartzaile izango dituen.

Kulturaren ikusgarritasuna, irismena, he-  
dapena, eskuragarritasuna, zabalkundea  
eta transmisioa dira gure erronkarik na-  
gusienetakoak.

## B. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK:

### 1. Kultura parte-hartzailea sustatzea:

- Kultura kudeatzeko eredu berriak lan-  
duko eta bultzatuko ditugu, parte-har-  
tzean oinarrituta. Horretarako admi-  
nistrazio publikoen eta kultur sistema  
osatzen duten eragile guztien artean  
harremanak sustatuko ditugu. Sorme-  
ne bezalako egitasmoak bultzatuko di-  
tugu.
- Sektoreko protagonistak (administra-  
zioa, enpresak, sortzaileak) elkartuko  
dituzten mahai sektorialak sortu. Li-  
buruaren mahaia (liburu saltzaileak,  
liburuzainak, argitaletxeak), arte plas-  
tikoen mahaia (artistak, akademiak,  
galeriak), musikaren mahaia (kontser-  
batorioak, musika aretoak, sustapen  
etxeak), arte eszenikoen mahaia, eta  
abar.

### 2. Euskarazko kultura sorkuntza sustatzea eta babestea, zaletasuna handitzeko:

- Sortzaile euskaldunen Sorguneak  
bultzatu sortzaileen eta administra-  
zioaren arteko elkarlanean, baliabide  
nahikoa eduki dezaten.
- Euskaraz sortutako kultura kontsumi-  
tzeari bideratutako kanpainak.

### 3. Euskal kultura eta bere transmisioa:

- Euskarazko Kulturaren mahaia sortu  
beharra dago, euskarazko kultura po-  
litikaren gaineko jarraipena egiteko.  
Mahai horren oinarrian euskarazko  
kulturgintzako eragileekiko elkarla-  
nak egon behar du, haiekin batera  
kultura politika horren diseinua eta  
abian jarri beharreko neurriak zehaz-  
tu ahal izateko.

### 4. Kultura feminismitik:

- Diziplina, ibilbide eta adin ezberdine-  
tako emakume sortzaileen lana bultza-  
tu, indartu eta bisibilizatzeko neurriak  
eta baliabideak jarri. Horretarako ema-  
kumeen sorkuntzak aurrera eramateko  
baliabideek ahalbidetzea ezinbestekoa  
da, bai diru laguntzekin, bai erakuske-  
tarako espazioekin eta baita ere lanen  
eta erakusketen informazioaren hedap-  
narekin eta emakumeek egindako  
lan sortzaileek ere gizonak egindako  
lan sortzaileek duten denbora bera,  
presentzia bera, garrantzi bera, eta  
oihartzun eta hedadura bera izan de-  
zatela bermatzea.

### 5. Ondarearen kontserbazioa eta babesa:

- Bizkaian daukagun ondare materiala  
eta inmateriala kontserbatzeko, babes-  
teko, balioan jartzeko, zabaltzeko eta  
hurrengo belaunaldiei transmititzeko,  
Plan Estrategiko bat beharrezkoa da.

### 6.2. *Euskara:*

#### A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Euskal gizarteak izugarritzko ondarea du: Euskara. Izan ere, euskara euskaldunok erabiltzen dugun hizkuntza da, beste ezer baino lehen.

Bizkaia lurralde euskalduna da: biztanleen portzentaia altua euskaldunak edo ia-euskaldunak dira. Gainera, 2 eta 30 urte bitarteko gazteen belaunaldia ia-ia osorik da euskalduna. Baina oraindik asko dira euskalduntzeko eskubidea izanik ere, erdaldun elebakarrak direnak.

Argi dago gure hizkuntzak azken hamarkadetan egin dituen aurrerapenak erakusgarriak direla mundu mailan. Baina alarma gorria piztu da. Goranzko joera moteldu egin da.

Kezka handia dago euskararen erabileraz, euskararen bizitasuna eta honen ondorio litzatekeen bizi-iraupena. Horregaitik, hizkuntza bizia izaten jarrai dezan, ezinbestekoa da lan hori aurrerantzean ere betetzen jarraitzea.

#### B. HELBURU OROKORRA:

Gaur egun Euskara ikasteko dirulaguntzak egon arren, ez dira nahikoak eta guztiz desberdinak dira herritar batzuentzat eta besteentzat. Horrenbestez, herritar guztiek euskara jakiteko eskubidea duten heinean, euskararen ezagutza ziurtatzeko eta ikasteko doakotasuna bermatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu behar dira erakundeetatik.

Euskararen ezagutza hedatzen jarraitzeko funtsezkoa da administrazioek babes ekonomikoa ematea, eta babes hori kontuz kudeatu behar da inoiz eragileen ekimenak estali gabe. Horrenbestez, administrazio publikoa euskalduntzeko ere urrats eraginkorrak egin behar dira.

#### C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK:

##### 1. Administrazioa euskaldundu

- Euskararen zeharkakotasuna bermatzeko, Euskara Saila gobernu egitura gorenean jarriko da erakunde guztietan, sail berezitu gisa.
- Aldundiak indarrean ezarriko ditu administrazioa berreuskalduntzeko eta euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko hizkuntza politikak.
- Erakundeen kontratazioetan hizkuntza baldintzak sistematikoki ezarriko ditugu.
- Erakundeetan euskarazko harremana bermatuko zaio euskaldunari.
- Erakundeen arteko harremanak euskaraz izatea bultzatuko dugu.

##### 2. Euskarazko hedabideak

- Euskarazko hedabideak, herrialde, eskualde eta tokian tokiko mailakoak bultzatuko ditugu Bizkaian eta Aldundiak lehentasunezko tratua emango dizkie eta euren jasangarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko hitzarmenak bultzatuko ditugu.

- Hizkuntza irizpideak ezarriko ditugu dirulaguntzak eta publizitatea esleitzerakoan.

### 3. Aisia eta kirola

- Aisialdia eta kirola (udalekuak eta eskola kirola) euskalduntzea bultzatuko dugu; bereziki landuko da alor hau gazteen erabilera ez formaleko gaitasuna indartzeko.
- Gazteriari begira egingo den eskaintza euskaraz izatea bermatuko da.
- Diruz lagunduko diren elkarteek (taldeak, klubak...) bermatuko dute beren jardueretan euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuko dituztela.

## 6.3. Kirola:

### A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Kirola eskubide gisa ulertzen dugu, edozein pertsonaren garapen integralerako zein gizarte kohesiorako elementua. Kirola herritar ororen sarbidea eta aukera berdintasuna bermatu nahi dugu.

Kirola funtsezko elementua dugu Euskal Herriaren kohesio, egituratze eta nazioaren garapenerako: nazio identitatea eta gure sinboloak suspertuz, euskararen normalizazioan urratsak emanez eta euskal kirol eredu propioa egituratzeko giltzarriak diren egiturak (federazio, elkarteak...) eta lehiaketa markoa definituz eta egituratuz, besteak beste.

Beste alde batetik, kirolaz gain, jarduera fisikoaren praktikaz ari gara. Gauza bat kirola delako eta beste bat jarduera fisikoaren praktika.

Zentzu horretan kirol egokitan eta desgaitasunen bat dutenen pertsonen artean jarduera fisikoaren praktikak izugarritzko eboluzioa izan duen arren, kolektiboan jarduera fisikoa eta kirola sustatzea behar beharrezkoa baita gizarte inklusioa garatzeko.

### B. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK:

#### 1. Kalitatezko kirola:

- Formazio egokia izango duten kirol hezitzaile/entrenatzaileak, etengabeko formazioa eskainiz.
- Kalitatezko kirol praktika garatzeko, kirol munduan maila desberdinetan arituko diren hezitzaile eta oro har herritarren formazioa eta ahalduntzea sustatu eta bideratzen saiatuko gara, eskura ditugun bitarteko publikoak lehenetsiz eta optimizatuz, Aldundien eta Jauralaritzaren menpean dagoen Kirolene kirol formazioa zentroarekin elkarlanaren bidez.
- Kirol egokitua bisibilizatu eta ohikoak direzan kirol praktika eremuetara zabaltzeko lanean aritu behar gara, esparruko eragileekaz batera.

#### 2. Euskarazko kirola sustatzea eta bultzatzea:

- Kirolaren euskalduntzea bultzatuko ditugu, bereziki Eskola Kirolean.

- Kirol jarduna euskalduntzeko federazioekin eta kirol klubekin elkarlanean arituko gara, kirol jardueraren alderdi guztiak euskalduntzeko, lehiaketatik teknikarien prestakuntzara.
- Hizkuntza eskubideak bermatzeko, neurriak eta baliabideak areagotu federazioekin eta kirol klubekin elkarlanean.

### 3. Kirola feminismotik:

- Emakumeen kirola bultzatu eta ikustarazi, emakumezkoen eta gizonezkoen kirolerako errekurtoak berdinduz.
- Federazio bakoitzak Berdintasun plan bat izateko elkarlana abiatu.
- Kirol eremuko foru dekretu bat osatzea, genero berdintasunean oinarritua, kirol kudeaketa eremuan bereziki emakumearen presentzia indartu eta sustatuko duena.



## 07

# Udal Finantzazioa

## A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Ekarpen Legearen bidez, Aldundiek bildutako dirua banatzen da Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen artean.

2021eko urriaren hasieran, Legebiltzarra onartu egin zuen *Baliabideen Bana-ketarako eta Foru Aldundiek EA Eren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko Ekarpenak zehazteko 2022 – 2026 aldian aplikatuko den Metodologiari* buruzko Legea (Ekarpen Lege bezala ezagutzen dena), Eusko Jaurlaritza osatzen duten EA Jren eta PSEren babesaz. EH Bilduren ustez, Lege hori aukera galdua izan da, alde batetik, Udal finantzazioaren nahikotasuna bermatzeko, eta baita, hain garrantzitsua den inguruko akordio zabala lortzeko.

Ekarpen Lege berri horretan dagoen berrikuntza da, Tokiko Erakundeen 2/2016 Legearen aginduz, Udal finantzazioari buruzko Kapitulu berri bat txertatu dela. Baina kapitulu bat egoteak ez du ondorioztatzen udalek beren eskumeneko zerbitzuak herritarrei bermatu ahal izateko beharrezko den finantzazioa izango dutenik.

Lege Proiektuak toki erakundeek tributu itunduetan izango duten partaidetzaren gutxienekoa finkatzen du, % 39,23. Justifikazio Memoriak azaltzen duenez, gutxieneko hori kalkulatu da aurreko koefizienteari gehituz Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Funtsari egindako ekarpenari eta udalen eginkizuna den euskararen erabilera, sustapena eta normalizazioa planifikatzeko ekarpenari dagozkion zenbatekoak gehituz.

Gutxieneko horrek udalek kalitateko zerbitzuak emateko behar bestekoa den

egiaztatzen duen txostenik ez dugu eza gutzen, udalek ez dute aukerarik izan beraien beharrak, ikusten dituzten hutsu-neak, eta abar azaltzeko. Lege Proiektua udalak kontuan hartu gabe egin da.

Esan bezala, Ekarpenean Legeak finkatzen du toki erakundeek tributu itunduetan izango duten partaidetzaren gutxienekoa, baina Aldundiek posible dute gutxieneko hori handitzea, eta gainera, udalerrri bakoitzak jasoko duen finantzazioa zehazteko irizpideak erabaki behar ditu, hau da, udalen finantzazio sistema, herrialde bakoitzean arautu behar da.

Bizkaian, eta EH Bilduren bultzadaz, EAJ eta PSErekin adostu genuen EUDEL eta Aldundien arteko Batzorde Mistoaren sartzeara udalen finantzazio sistema berria zehazteko. Batzorde Misto hori 2022ko martxoaren 16an eratu zen. Orain arte beste bi bilera egin ditu, gizarte zerbitzuei loturiko funts ezberdinak batzearen inguruan aritu da, baina ez du aurrerapen handirik egin, udalen finantzazio sistema berriari dagokionez.

### B. HELBURU OROKORRA

— Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 110 artikulua finkatzen dituen printzipioak bermatu, hala nola, **finantza autonomia** (ekonomia, finantza eta aurrekontuak antolatze eta kudeatzeko ahala, baina lurralde historikoetako foru organoek gai horietan dituzten eskumenei kalterik egin gabe); **aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasagarritasuna**; eta **finantza nahikotasuna**, hau

da, toki ogasunek behar beste baliabide izan beharko dute beren eskumenak gauzatzeko.

Finantza nahikotasunak esan nahi du herri bakoitzak definituriko herri proiektua garatu ahal izateko baliabide ekonomikoak bermatuta izatea. Kontuan hartu behar da UDALKUTXA ez dela Aldundiak udalerriei “ematen” zaion zerbait, zerga itunduen bidez lorturiko diru sarreretatik dator, eta beraz, bizkaitar guztiak ordaindutako zergetatik dator. Aldundia eta udalerriak parean egon behar dira, bizkaitarrek ordaintzen dituzte zergak eta erakundeen ardura da erakunde guztiak finantzazio nahikoa izatea herritarrek behar dituzten zerbitzu publikoen eskaintza bermatzeko.

### C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

— Udal finantzaziorako sistemaren honako ezaugarriak bermatzea:

- ✓ **Iraunkorra** izan behar du, udalek jakin behar dute finantzazioa izango dutela aurrean, hurrengo urtean eta hurrengoetan. Bermeak ezarri beharko dira. Ezin da izan erresistentziarako baliabideen berme.
- ✓ Gure herrien arteko **oreka eta elkartasuna bultzatzeko tresna** izan behar du.
- ✓ Gure jendartearen dauden **arazo sozialei aurre egiteko tresna** izan behar du: pertsonen arteko elkartasuna bultzatzeko, gure herrietan dagoen gizarte arrakalari aurre egi-

teko baliabideak eskainiko diguna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politikak herri mailan sustatzeko ahalbideratuko digu; gure herrietan dagoen jatorriari, aukera sexualei, eta abarrei buruzko aniztasuna kudeatzeko eta balorean jartzeko proiektuak aurrera eramateko baliabideak,...

✓ **Ezin da egon erabaki politikoen menpe, ezta koituntura ekonomikoen menpe.**

✓ **Arrisku partekatuko funtsa** izan arren, horrek **ezin du ondorioztatu udalen finantzazioaren nahikotasuna kolokan jartzea**. Diru sarrerak gutxitzen direnean, adostasuna lortu beharko da udalen eta Aldundiaren artean, itzuli beharreko zenbatekoa itzultzeko eraren inguruan, herritarrek ahalik eta kalte txikiena izan dezaten.

■ Horrek eskatzen du udalen **egungo finantzazio-sistemaren berrazterketa osoa**, egun udalek zerga itunduetan duten partaidetza bera (lehen % 56 zena) edota Gizartekutxa funtsari dagokion portzentajea handitzea barne. Portzentaje horiek ez dira Aldundiak erabaki behar duen zerbait. Adostasuna bilatu behar da Aldundia eta udalen artean.

■ Bizkaiko udalak oso ezberdinak dira eta udal finantzazioa guztiontzat izan behar du nahikoa. Udalen finantzazioa orekatua izan behar da eta horrek eskatzen du **funtsa banatzeko irizpideak udalen aniztasun hori bere barnean txertatu** beharko duela. Eta,

beharbada, konpentsazio bideak ere bilatu beharko dira.

■ Halaber, banatzeko irizpideetan sartu behar dira **politika berriak bultzatzeko konpromisoa**, hala nola, zaintza-politikak, trantsizio ekologikoko politikak eta abar bultzatzeko proiektuak.

■ Aldundiak bultzatzen dituzten **dirulaguntzen deialdiak** ezin dira izan udal gutxi batzuen finantzazioa handitzeko bide maltzurra. Udal guztiek aukera berdintasunean aritu behar dira dirulaguntzak eskuratzeari dagokionez. Horretarako, dirulaguntzen ordeztu, funts berezi batzuk sortu beharko lirarteke, esate baterako, Inbertsioetarako Planaren modukoak.

■ Udal finantzaziorako **eredu berriak lortu behar du udal guztien adostasuna**. Horretarako, udal guztien parte-hartzea, guztion arteko eztabaida bultzatuko dira eta ahalik eta kontsentsurik zabalena lortzen saiatuko gara.

■ **Errebisiorako konpromisoa** egon behar du. Egoerak eta beharrak aldatzen dira eta funtsak egokitu beharko dira. Ezin da izan 20 urtetan behin aldatzen den zerbait.

# 08

# Aurrekontu Politikak

## A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Aurrekontuek gobernuak eramaten dituzten politikak jasotzen dituzte. Alde bate-tik, diru sarreren kasuan, zerga politiken araberakoak izango dira; eta bestetik, gas-tuen kasuan, norengana bideratzen dituzten politiko publikoak islatuko dituzte.

Beraz, aurrekontuak ez dira zenbaki hu-tsak, izaera politikoa dute. Eta ildo ho-rretatik, aurrekontuak ez dira teknikariek egiten dituzten liburuxkak, baizik eta he-rritarren, eragileen eta politikarien artean eztabaidatu behar diren politikak gauza-tzeko tresna.

Aurrekontuak ere ez dira neutroak, gene-ro ikuspegitik. Jendarte patriarkal hone-tan dagoen emakumeen eta gizonen ar-teko parekotasun eza islatuta egongo da aurrekontuetan.

Azken legegintzaldietan abian jarritako ekonomia eta aurrekontu politiken lehen-tasunak ez dira gauza izan zenbait arazo larri – pobrezia, jendarte-desberdinta-suna, langabezia, jendarte bazterkeria – konpontzeko eta susperraldi ekonomi-koa bideratzeko; areago oraindik, arazo horien guztien etengabeko gorakada gel-diarazten ere ez dute asmatu aurrekontu politika horiek.

Amaitu berri den legegintzaldia berezia izan da. Covid-19ren pandemiak azala-razi zituen gure jendartean ziren krisiak eta berauei aurre egiteko premia mahai gaineratu zuen. Gerora ere, Ukrainako gerrak, bizitzaren garestitzeak eta horiek sortutako ondorioek are gehiago nabar-mendu dituzte premia horiek. Horien guztien ondorioz, krisi anitzen egoeran murgilduta gaude: zaintza krisia, krisi ekologikoa, krisi soziala,... Eta argi dago aspalditik datozen krisi horiei aurre egite-

ko ezin direla politika berberak planteatu: egiturazko aldaketak beharrezkoak dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak, aldiz, epe laburreko neurriak besterik ez ditu hartu, eta amaitu berri den legegintzaldian Foru Gobernua osatzen duten EAJk eta PSEk onartu dituzten aurrekontuak aztertzen baditugu, argi dago ez dela egon inolako aldaketa nabarmenik. Izatez, lau ekitaldiko (2020 – 2023) aurrekontuak alderatzen baditugu, baieztatu dezakegu ez dagoela aldaketarik, bata bestearen kopia dira. Lau urte hauetan ezer gertatu ez balitz bezala.

Bizi ditugun egiturazko krisiei aurre egiteko alternatiba sakon eta integralak dira beharrezkoak, gehiengoaren eskubide eta kalitatezko bizi duin baten defentsa oinarri beharko luketenak. Krisiei irtenbide gisa inposatu zaizkigun neurriak, aldiz, kapital handien interesak babestera zuzenduak izan dira, eta ez gizarte osoaren mesedean. Kontrara, neurri horiek, beste urraketa batzuen artean, langile belaunaldi askoren borrokaren bidez lortutako ongizate sistema husten ari dira.

Pandemiaren ondorio kaltegarriak kontuan hartuta, Europatik aldaketak etorri ziren zerga arauari zegoenez, defizita izateko eta zorpetzeko aukerak ireki ziren, baina Bizkaiko Foru Aldundiak defizita eta zorpetze maila mugatu zituen, beharrezkoak ziren egiturazko aldaketei muzin eginez.

Ezinbestezkoa da egoerari buelta ematea, eta gobernu sendo eta bultzatzaile bat ezartzea, lidergo publikoa gauzatuko duena eta ibilbide luzeko proposamen ausart eta askeak egingo dituen, egungo premia handiei ez ezik, gure jendarteak epe ertain

nera eta luzera ezarritako erronkei heltzea ere ahalbidetuko dutenak, baita horretarako mekanismo egokiak ezartzea ere.

Aurrekontu politikaren helburu nagusia politika publikoak garatzeko baliabide ekonomikoak bermatzea da, besteak beste. Baliabideak bildu eta inbertitzen diren moduen arabera, aberastasuna birbanatzen da, bidezko ekonomia bultzatzen da eta azken finean, nahi dugun gizarte erdua garatzen dugu, arrakala sozialari aurre egiten dion gizartea.

Diru sarrera nahikoak bermatzeko, alde batetik, zerga sistema justuago eta progresiboagoa behar dugu; eta, bestetik, jasotako dirua euskal erakundearen arteko banaketa egokiagoa behar dugu. Gaur egun, udalak bigarren mailako erakundeak dira finantzazioari dagokionez, eta horrek eskatzen du udalen finantzazio sistema berria garatzea, hurrengo atalean azalduko dugun moduan.

## B. HELBURU OROKORRA:

Pertsonengan oinarrituta eraiki nahi ditugu aurrekontuak, beren betebeharrak asetzeko eta ekonomi iraunkorraren katalizatzaile izan daitezen. Horretarako, aurrekontu politikak bost ezaugarri nagusi izango ditu:

- **Parte-hartzaileak:** guztion artean beharrezkoak diren politikak diseinatze aldera ezinbestekoa baita herritarren parte-hartzea.
- **Genero ikuspegia txertatua:** aurrekontuek gizon eta emakumeengan duten eragina kontuan hartuko duena eta

politika publiko guztietan berdintasunaren aldeko apustua egingo dutenak.

- **Birbanatzaileak:** aurrekontuek balio behar dute zergen bidez jasotakoa, zerbitzu eta politiko publikoetan inbertitzeko, era horretan gizarte egoera larriagoan daudenen beharrei erantzun ahal izateko.
- **Gardentasuna:** aurrekontuak ezin dira izan zenbaki multzo ulergaitzak, era erraz eta ulergarrian aurkeztu behar dira guztiok parte ahal izateko. Eta aurrekontuen kudeaketa era gardenean gauzatu beharko da, herritarrei egiten dena berri emanez.
- **Nahikotasuna:** diru sarrerak nahikoak izan behar dira bizkaitarrek dituzten premiei era egokian erantzun ahal izateko. Garrantzia berezia eman behar zaio udal finantziarioari. Udalek finantziario nahikoa izan behar dute herritarrei eman beharreko zerbitzuak eman ahal izateko.
- **Eraginkortasuna:** baliabide publikoen erabilpenari dagokionez.

### C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

#### 1. Parte hartzeko aurrekontu inklusiboak

- ✓ Parte hartzeko mekanismoak gaitzea, non eskualde ezberdinetako herritarrek, aurrekontu-proiektuei buruzko proposamenak egiteaz gain, haien gaineko erabakiak hartzeko eta haiei lehentasuna emateko aukera izango duten.

#### 2. Genero ikuspegia txertatzea

- ✓ Aurrekontuen genero azterketa sistematizatua, haien onartu baino lehen haien genero eragina aztertzeko.
- ✓ Aurrekontuen programa guztiek gizon eta emakumeen arteko berdintasun helburuak zehaztu behar dituzte.
- ✓ Aurrekontuen exekuzioaren eragina, generoaren arabera aztertuko da eta mekanismo zuzentzaileak zehaztuko dira.

#### 3. Aurrekontuak, errenta eta aberastasuna birbanatzeko tresna

- ✓ Aurrekontuen lege proiektuak diseinatzea, pertsonen eskubideak oinarritzat hartuta eta eskubide sozialei, bidezko ekonomia suspertzeari eta kalitatezko enpleguari lehentasuna emanez eta zerbitzu publikoen kudeaketa zuzena lehenetsiz.

#### 4. Aurrekontu gardentasuna bermatzea

- ✓ Aurrekontuak era ulerterrazean zabaldu jendartean.
- ✓ Aurrekontuen definizioari buruzko informazio publikoko guneak gaitzea aurrekontuak egiteko eta betearazteko prozesu osoan zehar.
- ✓ Herritarrei aurrekontua betearazteko moduaren eta mailaren berri emateko guneak gaitzea.
- ✓ Kudeaketa desegoki edo ilunak detektatu, prebenitu eta kontrolatzeko tresnak garatu eta inplementatzea.

## 5. Nahikotasuna

- ✓ Baliabide nahikoak lortzeko, zerga politikan ezinbesteko aldaketak egin behar dira.
- ✓ Udal finantziazioa nahikoa bermatu behar dute foru aurrekontuek. Horretarako, egun dagoen finantziazio sistema aldatu eta egokitu behar da udalen parte-hartzearekin.

## 6. Aurrekontuak eraginkortasun irizpideen bitartez kudeatzea

- ✓ Publikoaren kudeaketaren eraginkortasuna handitzeko behar diren mekanismoak aktibatzea, eskumenak gainjartzeko aukera eta horrek aurrekontuetan dauzkan ondorioak prebenituz.
- ✓ Administrazioaren arlo guztietan mekanismo zorrotzagoak sartzea aurrekontu baliabideen erabilera ebaluatzeko.
- ✓ Administrazio publikoen kontratazio prozedura guztietan klausula sozial bermatzaileak sartu eta kudeatzea.

# 09

# Gobernantza eredua eta parte-hartzea

## 9.1. *Gobernantza eredua:*

### A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Gardentasuna, parte-hartzea, kontuak ematea, gobernu irekia eta abar bezalako hitzak guztion ahotan daude. Ordezkaritza politikoan oinarrituriko sistema demokratikoa krisian dago eta gobernuek herritarrengana hurbiltzeko, herritarrengan konfiantza sortzeko, egiten duten politikari sinesgarritasuna emateko,... hitz horiek, era batean zein bestean, erabili behar dituzte.

Baina, guztiok gauza bera ulertzen dugu gardentasunaz? Herritarren parte-hartzea, zertarako? Edo gobernu irekia eta gardentasuna edo herritarren parte-hartzea gauza bera dira? Horrelako galderak erantzun ezberdinak dituzte.

Hitz berberei oso esanahi ezberdinak ematen zaizkie, gobernua osatzen duten indar politikoaren arabera.

Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, “Gobernu Irekia” da bere apustua eta horren barruan kokatzen dira gardentasuna, parte-hartzea, kontuak ematea edo datu irekiak. Aurreko legegintzaldian onartu zen Bizkaia Irekia – Gobernu Irekiaren Ekin-tza Plana 2017-2019. Ebaluazioa egin zen 2019ko abenduaren 31n eta, Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dituen ebaluazio ezberdinen antzera, oso txosten “polita”, baina mami gutxi eta beti adierazteko “Bizkaia ondo doala”. Izatez, hauxe da txostenaren ikuspegi orokorra: “Konpromisoei dago-kienez, ezarritako 14 konpromisoetatik 11 erabat bete dira, eta gainerako 3 konpromisoek aurrerapen handia izan dute. Planean zehaztutako mugarrien guztizkoari dagokionez, plana osatzen duten 45 mugarrietatik % 100 erabat garatuta edo



funtsean garatuta dagoela nabarmen du behar da”. Esate baterako, “Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politike-tan parte-hartze soziala sustatzea” guz-tiz beteta zegoela esaten zuten, Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua-ren Batzar Eratzailea 2020ko azaroaren 14an izan zenean!

Bizkaiko Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Araua dago. Horren arabera, Foru Planak eta Urteko memoriak egin behar dira. Eta egin egiten dira, baina sakontasun handirik gabe. Foru Planei dagokien ez, 2017 – 2019koa izan zen gardentasunari buruzko lehen Foru Plana, baina 2020 – 2022koa pasatu zen Gardentasunari eta Datu Irekiei buruzko Foru Plana. Era horretan, Datu Irekiei garrantzia gehiago ematen zaie, arlo horretan urrats gehiago eman dira (eta beharrezkoak dira), baina gardentasunari dago-kionez, urrats handirik ez.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Arauak herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen du, gobernantzaren elementu nagusietakoa izan behar dena. Zein da arazoa? Herritarrek ez dakitela informazioa eskuratzeko eskubidea dutenik. Horren adibidea da informazio publikoa eskuratzeko egiten den eskaera kopuru eskasa: 2022an, 71 eskaera izan ziren. Bizkaian, 19 urte baino gehiagoko ia milioi bat pertsona bizi ziren. Portzentajea hutsaren hurrengoa da. Bizkaiko Foru Aldundiak behin eta berri-ro “saltzen” ditu beren proiektu izarrak, kriston kanpaina mediatikoak eginez, baina informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ezagutarazteko ez dugu eza-gutu inolako kanpainarik. Bizkaiko Foru

Aldundiak eskubide horri ematen dion garrantzia eskasaren isla.

Halaber, kontzeptuen inguruko nahasmena agerikoa da: aurrekontu irekiak daudela diote excel-en eskuratzeko posible delako!

Zuzentasuna, erakunde integritatea eta etika publikoa dira gobernantza-eredua-ren ezinbesteko ezaugarriak. Bizkaia ez du sortu erakundearen zuzentasun sistema. Batera ezintasunei eta interes-gatazkei buruzko 5/2018 Foru Araua dago, baina bertan etika printzipioak garatu gabe daude eta 2021eko apirilaren arte Foru Gobernuak ez zituen Jokabide Gidak onartu (eta gainera orientazio gidak dira, ez dago horren inguruko jarraipenik). Bestalde, Foru Arauak sortu zuen Berme Batzordea barne organoa da, kanpoko aditurik gabekoa, ezinbestekoa dena kanpoko kontrola egiteko.

Amaitu berri den legegintzaldian, gobernantza barruan sartu dute beste ezaugarri bat: *Gobernu digital barneratzailea* eratzea. Hiru arlotan garatzen ari da: barrura begira; kanpora begira eta, azkenik, gobernu teknologien ekosistema (GovTech delakoa) sortzeari begira.

Zalantza barik, erakundearen digitalizazioan aurrera egin behar da. Baina urratsak ezin dira bat batean eman, urratsez urrats joan beharko da eta Bizkaiko Foru Aldundiak hartu duen bidea ez da azken hori izan. Horren adibiderik nabarmena da 2020ko errenta kanpainarekin gertatu zena. Bat batean aitopen guztiak online jaso eta online aurkeztu behar genituen. Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuen onartu EH Bilduk egin zuen proposamena

proba pilotu bat egiteko, eta behartu zituena errenta aitorten guztiak online egitera. Kaos bat izan zen, akats ugari, jende askok aholkularitzetara jo behar izan zuen,... Baina, zoritxarrez, ez du ematen porrot horretatik asko ikasi dutenik, aurtengo errenta kanpainaren hasieran, berriro arazoak egon baitira (web orria blokeatu da, eta gainera segurtasun neurriak gutxitu dituzte, horrek izan ditzakeen kalteak kontuan hartu gabe).

Digitalizazioa ezin da orokortu, egun jendartean dagoen arrakala digitalari aurre egiteko neurriak hartu gabe.

Eta digitalizazio prozesuak eskatzen du erakunde barruko lanpostu espezifikoak sortzea, prozesu guztia bideratzeko, eta ez Bizkaiko Foru Aldundiak hartu duen azpikontratazio bidea. Esate baterako, "Estrategia Digitala garatzeko eta datuaren bulegoa eta datuaren gobernantza eredua abian jartzeko 2022-2024" milioi bateko kontratua esleitu die 3 enpresei.

### B. HELBURU OROKORRA:

Bultzatu nahi dugun gobernantza ereduak, hurbiltasunean, gardentasunean, zuzentasunean, herritarren parte-hartze aktiboan eta kontuak ematean oinarrituta egon behar du.

Hurbiltasun geografikoa eta herritarrek administrazio publikoarekin dituzten harremanak errazten dituen hurbiltasuna.

Gardentasuna eta datu irekiak eskaintzea ezinbestekoak dira parte-hartzea gauzatu ahal izateko.

Administrazio Publikoaren eta bertako kargu zein langile publikoen zuzentasunari, objektibotasunari, eraginkortasunari, gardentasunari edo inpartzialtasunari kalte egin diezaioketen jardunbide okerrak edo jokabide ezegokiak saihesteko neurriak ezarri beharko dira.

Parte-hartzea eraldaketa lortzeko tresna gisa ulertzen dugu, gure demokrazia eredu propioa sortzeko tresna. Herritarren partaidetza aktiboa, kalitatekoa, erabakigarria, benetakoa, eraikitzailea eta eraldatzailea lortu behar dugu.

Gobernu digitala sortzeko erronkari aurre egiteko, bertako langileak kontuan hartu, herritarren artean dagoen arrakala digitalaren aurkako neurriak hartu eta Gobernu teknologien ekosistema sortzeko erakundearen egitura lanpostu espezifikoak sortu eta txertatu behar dira.

### C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK:

#### 1. Bizkaiko sektore publikoaren kudeaketa eredu irekia eta hurbila garatu.

- Bizkaiko Foru Aldundiak herritar guztiei bermatu behar die aurrez aurreko arreta egokia, beharrezkoak diren langileak izanik. Arreta telefonikoak edo online egindakoak ezin dute aurrez aurreko arreta ordezkatu. Herritarrek duten arreta jasotzeko bidea aukeratzeko eskubidea bermatu behar du Bizkaiko Foru Aldundiak.
- Herritar guztiek ulertzeko moduko informazio erraza eskaini behar zaie

(gastu eta aurrekontu publikoak, diru-laguntzak, proiektu handiak eta abar), teknizismoak alde batera utzita, eta beharrezkoak diren bide guztiak erabilita baztertuen dauden kolektiboetara iristeko. Era berean, prozesu administratiboen des-burokratizazioa martxan jarri, herritarrentzat ulergarriagoak eta eskuragarriagoak izan daitezten.

## 2. Bizkaiko sektore publikoaren kudeaketa eredu gardena eta kalitatekoa sustatu:

- Gardentasunari buruzko Foru Arauaren garapena berrikustea, eta hobetzeko eta modu egokian garatzeko plan artikulatuak eta zeharkakoak definitu. Herritarrek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea gizarteratzeko neurriak hartu.
- Sektore Publiko osoko kontratazio prozeduren gardentasunean sakonduko dugu eta egun indarrean dauden Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio prozeduran sartzeko klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak aztertu eta egokitu ditugu, kontraturiko langileen gutxieneko soldata 1.400 €-koa izan dadin, lan-baldintza duinak bermatzeko, berdintasun konpromisoak betetzen direla zirtatzeko, jarduera ingurumena errespetatuz burutzen dela egiaztatzeko eta abar. Halaber gizarte klausula horiek zabalduko ditugu giza eskubideen eremukoak sartuz.
- Bizkaiko Foru Aldundian eta diru publikoz baina kudeaketa pribatua eginez funtzionatzen duten merkataritza foru sozietate eta foru fundazioen sarea

progresiboki ezabatzeko plana abian jarri, BFAk erakunde horiek egiten dituzten jarduerak zuzenean kudeatuz.

## 3. Sektore publikoaren zuzentasuna, kanpoko gainbegiratzea eta kontrola indartzea.

- Kargu publiko eta izendapen libreko kargu guztientzat jokabide kodeak diseinatu eta martxan jarri, honako hauek bermatzeko: soldatak egokitzea errealitate sozialarekin bat etorriz, pribilegioak ezabatu eta euren zereginak sortutako beharrezanekin soilik eta esklusiboki bat datozen konpentsazioak egokitu; baita erabaki-hartze eta gastu publiko zorrotzak ere.
- Erakundearen zuzentasun sistema orokorra sortu Bizkaian eta horren jarraipena egiteko Bizkaiko Etika Bartzordea sortu, bertan kanpoko adituen parte-hartze nagusia bermatuz.
- Neurri hauek txertatzeko, indarrean dagoen Interes gatazkei eta Bateria-zintasunei buruzko 5/2018 Foru Araua aldatzeko prozedura abiatu behar da.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren politiken ebaluazio sistemak sustatu behar dira eta, aldi behin, Foru Gobernuak egindako kudeaketaren berri eman behar da herritarren aurrean.

## 4. Erronka digitalari era benetan barneratzailean aurre egitea.

- Gobernu Digital Barneratzailea sortzeko eman beharreko urratsak, Bizkaiko Foru Aldundiaren langileengan eragina duten heinean, ahalik eta adostas-

nik handiena lortuz garatu behar dira, horretarako ezinbestekoa den negoziazio sindikala bultzatuz.

- Ahalik eta herritar gehienak digitalizazio prozesuaren partaideak izan daitezzen, beste euskal erakundeekin elkarlanean, bizkaitar guztien ahalduentze teknologikoa bultzatzeko neurriak hartu behar dira, egungo arrakala digitalari aurre eginez.
- Gobernuko teknologien ekosistema, GOVTECH delakoa, sortzeko prozesua Bizkaiko Foru Aldunditik bertatik garatu behar da, beharrezkoak diren baliabideak (formakuntza, gaikuntza, azpiegitura teknologikoak, ...) bermatuz eta kalitatezko lanpostu publikoak sortuz. Datuen trataeran, eta bereziki, erabakiak hartzeko uneetan, kontuan hartu behar da algoritmoak ez direla neutroak eta erabilitako datuen menpe daudela. Genero, jatorri, maila sozioekonomiko eta abarren arabera albo-rapenik egon ez dadin, datuak zuzenak izatea eta era orekatuan hartzea ezinbesteko elementuak dira.

## 9.2. Parte-hartzea

### A. DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA:

Indarrean dagoen sistemak, jarduera esparru guztietara heltzen den etengabeko krisia bizi du. Eliteen politika ereduak sorturiko krisialdiak, bai Euskal Herrian eta baita mundu zabalean bizi garen herritarrek kaltetzen ditu, boterea eta aberasta-

sunak gutxi batzuen esku egoten jarraituko duela segurtatzeko, gehiengoaren ongizatea xahutuz, etorkizuna hipotekatuz eta bizitza zein lan baldintzak kaskartuz.

Sistemaren politika eredu hauek erabaki ahalmenik gabeko herritar otzanak eta menpekoak bultzatzen ditu, kontrolik eta gardentasunik gabeko inposaketa ekonomiko eta politikoan oinarritutako eredu ilunak ahalbideratzeko. Honi guztiari, nazio gisa dagokigun subjektu politikoaren ukapena erantsi behar zaio. Beste batzuk erabakitzen dute gure izenean.

Herritarren parte-hartzeaz hitz egiten du Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko partaidetza Mapa egina du. Mapa horretan nahasten dira gizarte partaidetzarako organo eta foro iraunkorrak (esate baterako, Elkarrizketa Zibilerako Mahaia), erakundeen arteko koordinaziorako organoekin (esate baterako, Iruzuraren kontra Borrokatzeko Batzordea) edota barne-koordinaziorako organoekin (esate baterako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailen arteko Batzordea). Edo gizarte partaidetzarako organoen artean kokatzen dute herritarren ordezkari-tzarik ez duten organoak, esate baterako, Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseilua. Nahasmen interesatua, azken finean, partaidetzaz hitz egiten delako, baina ez herritarrek erabaki politikoetan parte hartzeko aukerak zabaltzeaz.

Orain dela gutxi ezagutu dugu Arantzazu Labek egindako “Demokraziari buruzko ulermenak gurean” azterlana. Bertan, hiru herritarretik bik uste du sistema politikoan eragiteko aukerarik ez daukala herritar arruntak. Eta proportzio berean uste

dute herritarrek pentsatzen dutena oso gutxi edo ezer ez zaiela politikariei inporta.

Ez dugu herrialdeen araberako daturik, baina ziur gaude Bizkaian datu horiek are okerragoak izango direla; hain zuzen, Bizkaiko herritarrek politika publikoetan eragiteko edota erabaki politikoetan parte hartzeko ez baitute inolako biderik.

Legegintzaldi honen amaieran onartu berri dugu Araugintzako herri ekimena arautzen duen 1/2023 Foru Araua. Horren bidez, herritarrek Batzar nagusietan Foru Arau Proiektuak aurkezteko bidea zabalitzen da, baina dagoen hutsunea da aplikazio eremua oso estua dela. Esate baterako, zergei buruzko Foru Arau Proiekturik ezin da aurkeztu eta, hain zuzen, zergak arautzea da Batzar Nagusien eskumenik garrantzitsuenetarikoa.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan sozialki historia eta tradizio handia duen “auzolana” eta “komunitateak” ditugu. Sozialki oso barneratua dugu autoeraketaren bidez eta borondatez herrigintza egitea.

Mugimendu eta elkarte sare handi eta biziak ditugu. Gure benetako indarra, lanerako balore hauen baitan kokatzen da eta hori da hain zuzen EH Bilduk jaso zein sakondu beharrezko parte hartze kultura.

Herri proiektuaosatzean herritarrak protagonista dituen proiektua nahitaezkoa da. Alegia, herritarrek erabaki egin behar dute, beren buruaren jabe izateko tresnak behar dituzte eta erabakien subjektu izan behar dute. Horretarako, parte-hartzea ezinbesteko printzipioa, filosofia eta lanabesa da.

## B. HELBURU OROKORRAK:

Parte-hartzea eraldaketa lortzeko tresna gisa ulertzen dugu, gure demokrazia eredu propioa sortzeko tresna.

Herritarren partaidetza aktiboa, kalitatekoa, erabakigarria, benetakoa, eraikitzailea eta eraldatzailea lortu behar dugu. Berdintasunaren ikuspegitik, egiturari dagokionez diskriminazio egoeran dauden sektoreen hitzari lehentasuna emanaz.

Erabaki handi eta txikiei dagokionez herritarrak kalean nahiz erakundeetan ahaldunduzeko garaia da. Praktikan jarri behar dira demokrazia zuzenerako guneak, lan-kidetza sozialerako sareak eta demokrazian sakontzeko esperientziak.

EH Bilduren parte-hartze politika proposamena gaur egungo errealitatetik abiatuko da. Halaber, egingarria, bideragarria eta pragmatikoa izango da herritarrak boteretzea ardatz harturik.

## C. ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK:

### 1. Herritarrek politika publikoetan parte har dezaten sustatu:

- Agente eta eragile sozioekonomikoen erakundeen eta herritarren artean informazioa trukatzeko bideak, guneak eta esparruak adostea, baita herritarrek arlo publikoari lotutako erabaki-hartzean eta plan eta programa garrantzitsuen betearazpenaren jarraipenean parte hartzeko ere.
- Herritarren Parte-hartzerako Foru Zuzendaritza sortzea, herritarrek kudea-

keta publikoan eta lurralde proiektu estrategikoetan parte har dezaten eta erabakietan eragiteko aukera izan dezaten sustatzeko helburuarekin.

- Parte-hartzerako politiketan genero ikuspegia txertatuko da emakumeen parte-hartze orekatua bermatzeko eta emakume anitzen ikuspegiak txertatu ahal izateko.
- Parte-hartzerako langile teknikoen sare bat sortzea; langile horiek prestakuntza jasoko dute bai genero ikuspegia txertatzeko bai pertsona guztien eta, bereziki, zailtasun handiagoak dituzten talde edo kolektiboen parte-hartzea errazteko (gazteak, adineko pertsonak, migratzaileak eta abar).
- Araugintzako herri ekimena arautzen duen Foru Araua herritarren artean ezagutarazteko neurriak hartzea eta herritarrek bide hori erabil dezaten bultzatzea.

## **2. Herritarrei egindako kontsultak sustatu, parte-hartze sozialerako esparru berri baterako funtsezko elementu gisa:**

- Zuzeneko demokraziako esperientziak bultzatu, adibidez herri-kontsultak eta berrespen edo errefrenduak, politika publikoei lotutako erabaki hartzean ahalik eta pertsona gehienek parte hartzeko helburuarekin.
- Herritarrentzat garrantzitsuak diren politika publikoei eta proiektuei buruz herritarrei kontsultak egiteko baldintzak maila politikoan adostu, eta pertsona eta kolektibo guztien eta bereziki

jendartean baztertuen daudenen parte-hartzerako berme guztiak daudela ziurtatzea.

- EH Bilduk enfasi berezia jarriko du herri kontsulta, eta oro har, prozesuen prozedura eta moldeak herriko eta herrialdeko eragile politiko eta sozialekin batera burutzean.

## **3. Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuak garatu.**

- Herritarrei aurrekontuei buruzko informazioa eta prestakuntza ematea.
- Diagnostiko bateratua egitea eta proposamenak lehenesteko irizpideak ezartzea herritarrekin batera, ondoren eztabaidatu ahal izateko.
- Bizkaiko aurrekontu parte-hartzaileen prozesua eskualdeetan oinarrituz egingo da, urtero modu parte-hartzailean erabakiko den foru aurrekontuaren zatia zehaztuz.
- Aurrekontuen jarraipena era parte-hartzailean burutuko da, eskualdeetako bilerak eginez.



**EGINGO DUGU.** ehbildu